

Maiatz:





IRACURTCAILLE

LIBURU HVNEN MANERAZ
A B I S V A.

Laura MINTEGI :

	<i>Berbatan</i>	2
	<i>Bi Historia, Komeria, Miseria</i>	5
Auxtin ZAMORA	<i>Iheska loari</i>	7
J.L. BORGES (itzulpena I. Borda)	<i>Beste buruz-buruzko gudua</i>	8
Gotzone SESTORAIN	<i>Poemak</i>	10
Zientzia : Sanova BEACH	<i>Sagarra</i>	16
Literatura : Made in Japan	<i>Kanikaize</i>	18
Ahantz hitzer hatz (itzulpenak)		
SAPPHO	<i>Maite bati</i>	20
LI T'AI PO	<i>Nostalgia</i>	
	<i>Mendian</i>	
DANTE	<i>Soneto VI</i>	
	<i>Soneto VIII</i>	
NEGM CHEIKH	<i>Hitzak</i>	
HOLDERLIN	<i>Zuk ere asko</i>	
CZESLAW MILOSZ	<i>N.N.tzako eresi kanta</i>	
KAHLIL GIBRAN	<i>Aitameri</i>	
W. MULLER	<i>Ezki</i>	
Jean Louis CAUSSADE	<i>Denbora bera nigarka ari zen</i>	24
	<i>Hobe sunsitzea</i>	24
	<i>Debru krapautak</i>	25
	<i>Negua kantuz</i>	25
	<i>Luma paregabea</i>	25
ZIGOR	<i>Harrapaladan</i>	26
	<i>Sua</i>	
	<i>Erran</i>	
	<i>Amets</i>	
PUB : Euskaraz irakur gehiitiago		27
Itxaro BORDA	<i>Orioko elizan</i>	28
	<i>In God we trust</i>	28
	<i>This is the end Maitea</i>	29
Mayi PELOT	<i>Josabari</i>	31
	<i>Amarauna 2 eta 3</i>	33
Eñaut ETXAMENDI	<i>Jandonabakirako bidea</i>	35

BERBATAN

Laura Mintegi

ILUSIOAREN ORDAINA BAINO URRUNAGO LAURA MINTEGIREKIN...

Guk, iparraldean idazten dugunok, doi bat idealizatzaren ditugu hegoaldean lanean ari direnak. Gure buruaz ditugun dudak kontuan hartuz, Durangotik joan gara Algotaraino, Laura Mintegirekin solastatzeko. Iranja jusa genuela basoetan, Fits zakurra aldamenean zagoela, mintzatu gara literaturaz eta beste hainbat gaietaz. Hona elkarrizketa luze mamitsu haren zati batzu : hasteko, Laura Mintegi Lakarrari presenta zedin eskatu diogu...

— Laura Mintegi naiz ; suposatzen dut hemen nagoela liburu bat idatzi dudalako, eta bueno, aldizkarietan eta egunkarietan idazten segitzen dudalako. Nitaž esateko gutxi daukat, bakarrik hemen bizi naizela, Algortan, nahiz eta naparra izan. Logikoa denez eta Lizarrakoa izanda, euskaldun berria naiz ; eta idatzi, bertan ikasi nuen euskaraz, idatzi egiten dut ia ia betidanik, lehenago poemak egiten nituen guztiak bezala, maitemindurik nengoen eta orduan, poemak idazten nituen gaztelaniaz.

Gero, denborarekin, euskara ikasi ondoren, erabaki nuen euskaraz idatzi behar nuela. Orduan, horrek suposatzen zuen izugarrizko kolpea niretzat, hau da hola adierazi barruan daukagun guzti hori beste hizkuntza batetan, oraindik menperatzen ez nuena. Egon nintzen bi edo hiru urte ezer idatzi gabe, nire buruari promesa hori egin niohalako, nire burua bultzatu nuelako euskaraz idaztera. Eta pixka pixkana denboraz, hartu nuen erreztasun handiagoa ; gero etorri da, bai poesia, bai prosa euskaraz egitea... prozezo luze baten ondoren...

— Zeronen aurkezpean bukatzeko, esaten ahal diguzu zer lan egiten duzun ?

— Beti bezala, bi lan mota egiten ditugu gehienok ezta ? Bat bizitzeko, ogibidez, eta bestea gustatzen zaiguna. Ogibidez, irakasle naiz, magisterio eskolan ematen ditut klaseak, eta profesioz eta gogoz erdi-kaseteria...

— Argian kolaboratzen duzu...

— Bai ARGIA-n gero literatur aldizkari batean TTU-TTUA-n, eta noizean behin EGINeko «Egunon»-en.

— Lehen, ANAITASUNA moldatzen zuen taldean zinen, ez ?

— ANAITASUN-ean idatzi nuen gauza solte asko, eta seriooki hasi nintzenean desagertu zen zoritxarrez, mundu guztiak bezala, arrazoï ekonomikoak zirela eta...

— Aipa dezagun zure obra orain. Hemen, liburu bat daukagu eskuetan : «Ilusioaren ordaina», ipuin bilduma bat segidan presentatuko diguzuna...

— Liburu hau 82-an dago eginda, gutxi gora behera, eta 83-an publikatua. Zazpi ipuin agertzen dira barruan, eta argitaratuetarik bat saritua izan Donostian beste bi finalistak izan ziren ; lagun batek bultzatuta, eta ikusiz jendei gustatzen zitzaizkiela, azkenean, ausartu nintzen eta publikatu zen, nahiz eta nire hasierako asmoa hori ez izan. Gaur egun, pozik nago, gero gehiago idaztera bultzatu nauelako. Liburu hau egin nuen urte betez krisis baten egon ondoren ; sentitzen nuen, eta pixkat Afrikako esperintzia asimilatzeke beharra nuen, orduan, ba, boligrafoak lagundu ninduen, eta bueno horrela atera zen hau. Ez da inondik Afrika agertzen, ezta beltz bat ere...

— Baina ipuin batzu aski beltzak dira...

— (irriz) bai, zoritxarrez askotan heriotza agertzen da. Nik uste dut, idazle gehienek heriotzarekin oso harreman estuak eta lizunak daukatela, zorionez edo zoritxarrez. Baina oso gutxitan hartzen du boligrafoa idazle batek momentu alai batetan. Hartzen du boligrafoa etsipenez, plxkat porrot eginda edo trixte dagoenean. Eztakit, es que boligrafoa lagun bat da, eta lagun batengana jotzen dugu normalean gaizki gaudenean. Hori da : ez da apropos eginda, eta gero irakurtzerakoan, bai konturatzen naiz, egia da, nahiko beltzak direla batzu. Baina bueno hala eta guztiz nik ondo pasatzen dut...

— «Satorzuloa» ipuinarekin Donostia hiria saria ardietsi zenuen. Hegoaldean, idazle batentzat ze inportantzia dute literatur sariketek ?

— Hor nik uste dut kontraesan handia dagoela : alde batetik, guztiok esaten dugu hori ez dela bidea, eta bestetik presentatzen gara sariketetara. Hori ez da bidea, guztiok badakigu, baina baditu abantailak, eta begi bistan daude : bat, ekonomikoa, oso sari inportanteak dira, eta diru laguntza hoiiek oso ondo datoz edozeinentzat. Beste bat badu, bueno zoritxarrez, herri honetan saritua izan arte inork ez zaitu ezagutzen, eta sari bakar bat irabazita ere, izugarrizko bouma dago : mundu guztiak ezagutzen zaitu, entrebistak hemendik eta handik, eta nahi duzuna egin dezakezu. Ia baimena ematen dizute edozertarako. Hori ez dago ondo, baina joko horrela da : guztiok sartzen gara, nahiz eta gero kritikatu ere, ezta ?

Orduan badu bere garrantzia. Nik uste dut garrantzi hori erlatibisatu behar dela, urrango produkzioa ikusita. Sari horren ondoren, produkzioa ona badator, orduan, sari horrek ez zaukan balio handirik. Gero produkzio hori txarra badago, ba, ez dauka ere balio handirik, pertsona horrek ez duelako segituko. Inportantea da, baina nire ustez, hori komatxoeren artean ipini behar litzateke...

— Beraz inportanteagoa da idazle batentzat egunero egiten duen lana, aldizkarietan parte hartzea, edo zuretzat, TTU-TTUA-ren kasuan, beste bi lagunekin egin duzuen bezala aldizkariak sortzea...

— Arrazoï duzu. Hori da kontua ez ? Nik liburua publikatzeko aukera ukan nuen sari bat irabazi nuelako, baina zenbatek ez dute publikatu, saririk irabazten ez dutelako. Bide hori kritikatzan genuelako, beste bide bat eskaini nahi genuen : izan zen aldizkariaren jaiotzearen arrazoia. Mundu guztiarentzat sortu genuen aldizkaria, batez ere idazle ezezagunentzat. Hori da TTU-TTUA, da plataforma bat, orri zabalak, aldizkari independentea, eta batez ere norberaren indarrak probatzeko lekua.

Guk, behar bada, ez genuke horrelako aldizkari baten beharrik, dakigulako publikatu nahi izanez geroz, posible dela editoriale batekin edo bestekin konpontzea, SUSA, ELKAR eta hainbat argitaletxeekin. Baina, eta hortik zehar daude hainbat idazle eta, guztientzat zeozer ezta ?

— Zein dira TTU-TTUA-n kolaboratzen dutenak ?

— Bi klasetako dira batez ere : astolana egiten ari direnak, hiru gara : Joanes URKIO, Migeltxo MONFORT eta ni ; gero, kolaboratu, ideiak eman, idatzi, originalak aportatu, hauxe zerranda luzea. Gertatzen dena da, noiz behinka-

ko kolaborazioak direla...

– *Ba ote da konfliktorik TTU-TTUA-ren barruan ?*

– Eta non ez ? Klaro dagoela, baina hori da bizitzaren saltsa. Konfliktorik ez balego hilak geundeke guztiak, zorionez ez gaude hilda, bizirik eta, zoritxarrez batzuetan oso bizirik gure konfliktuak handiak izaten direlako...

– *Zelan dabilta aldizkariak hemen ?*

– Hegoaldean ematen du izugarritzko bouma dagoela. Uste dut oso ondo dabilzala, zenbat eta gehiago dagoen, hobeto. Esan nahi duelako, alde batetik jende asko dagoela idazteko, baina batez ere, hori inportanteena jende asko dagoela literaturaren alde zerbait egiteko prest, eta ez bakarrik boligrafo bat hartu, papera, eta ipuin bat bidali eta listo !, baizik eta aldizkari bat atera prozezo osoan parte hartu, eta beste eskaini nahi die hori. Oso inportante da ikustea, gaur hemen atera dela aldizkari bat, bihar beste leku batetan, eta etzi herri txiki baten auzo batean. Horrek esan nahi du gaur bertan badaudela gutxienez, bi edo lau pertsona horren alde daudenak, eta zaletasuna sortuko dutenak. Orduan, nik ondo ikusten dut prozezoa, baina gero badago beste puntu bat normalean nik aipatu egiten dudana, eta da, ba, gure idazle konsegratu famatu eta ospetsu hoiek ikara senditu behar dutela ikustean heurrek egindakoa ez dala geldituko kuestinatu gabe, eta zalantzarik gabe, euskal literaturaren historia, baizik eta estalia izango dela denborarekin ez badira espabiltzen...

– *Esan nahi duzu pixkat kritikatu behar dela mundu ofizial hori...*

– Kritikatu, edo eztaikit astindu. Hain literato onak baldin badira demostra dezatela hori, segi dezatela idazten eta mantentzen dezatela heuren izen hori ezta ? Ezin da hain errez pasatu euskal literaturaren historiara, ba, nobela bat bakarrik eginda, ipuin batzuek eginda. Demostratu behar da pertsona batek badakiela idazten, eta orduan, orain datorren gazte multxo honek bortxatu behar ditu idazle konsegratuak ba, gehiago eta kualitatzeko gauzak idazten. Gainera, azken batean, gure aintzindariak izan behar dira, gure ereduak, gure aurretik daudenak eta guri eskaini behar dizkigutenak esperientzia bat, modu batzuek, hizkuntza bat, eta esijitu behar diegu hori, gero guri esijituko digutelako.

– *Laura Mintegi, emakume idazle bezala, nola sentitzen duzu zure burua euskal herri matxixta honetan ?*

– Bueno, ate batetik pasatu beharrean, beti irekitzen ditute atea, niri lehen pasatzen uzteko, ezta ? Hori abantaila itzela da. Gauzak aurretik ikusten ditut, baina egia esan, batzutan sentitzen zara, hemen Algortan esaten dugun bezala, «txakur berdea», hau da gauza arraro bat. Alde batetik euskaldun izatea, bueno, nahi bitxia da, euskalduna alfabetatua gehiago, gainera idazle eta emakumea, batzutan sentitzen naiz bitrina batean formolean sartuta. Ni mugitzen naizen medioan oso gutxi gara, eta batzutan egin behar dugu fronte bat, hori niri etzait gustatzen. Aldez aurretik pertsona sentitzen naizelako, eta gero emakumea eta gero idazlea. Bizitza honetatik joan behar beti bandera batekin... ezin kenduz : ni emakumea, eta idazlea, eta gero pertsona... Askotan ahazten duzu zer den pertsona izatea. Beti joan behar dugu bizitzatik gauzak demostratzen, eta nik ez diot inori ezer demostratu behar. Niri gustatuko litzaidake izatea ni naizen modukoa, besterik ez. Ez diot inori demostratu behar, ba, emakumea izanda, euskalduna, hala eta guziz ere badakidala idazten. Ez da paper polita, baina, bueno, guztioi tokatzen zaigu, zuek ere badakizue horretaz nahikotsu ezta ?

– *Beste emakume idazleekin ba ote duzu harremanik ?*

– Bai, badituzte, gero eta handiagoak. Eredu bila zabiltzanean, irakurtzen duzulako euskaraz egiten den guztia, baina batez ere emakumeek egiten duten guztia, ikusteko besteak nola konpontzen diren horrekin, eta nik ditudan arazoak nola konpontzean dituzten... Orduan, kontaktuak gero eta handiagoak dira, emakume gehiago agertzen da gainera, hori

izaten da beti pozgarria ; baina dena dela, ezin da hori mitifikatu. Askoz ere hobeto konpontzen naiz askotan gizonen batekin, emakumezko batekin baino. Emakumeak izateagatik, ez dugu hala beharrez ondo konpondu behar. Badaude gizonen artean lodiak eta argalak, rubioak eta beltzaranak, begi urdindunak eta beltzak dituztenak : emakumeetan ere bai. Orduan afinitateak eta zaletasunak, hurbiltasunak, askotan gizonen batekin handiagoak dira, baina bai aitortzen dut, emakumezkoekin beste harreman mota batzuek daudela, konplizitate bat. Bigarren mailako pertsonak gara, eta klase sentimentu hori beti argi dago. Bai, harremanak baditugu, ondo konpontzen gara, eta oso majoak dire danak.

– *Zein adibidez ?*

– Niri asko gustatzen zait Tere IRAZTOZA-ren poesia. Oso ona iduritzen zait. Gero eta gehiago gustatzen zait Maria Eugenia MARTIN-ek egiten duena. Hor dago frogia, hila-bete gutxitan hiru lau sari irabazi ditu. Badaude beste batzuek oraindik, eztaکیدana nondik aterako diren, baina gaur arte egindakoa ondo dago, behar bada, nahiz eta nere estiloa ez izan, esate baterako, Laura URUBURU, edo Gema LASARTE ; oso deskonzertantea iduritu zait beti Maripi SOLPES uste dut mundu berezi bat daukala, imajen mundu berri bat, niretzat pixkat konplikatu dena, baina gustatzen zait ; nahiko historikoak, baina oso idazle onak, batez ere artikulu-gintzan, Itziar URTASUN eta Mariasun LANDA. Ez dut aipatu oraindik, mundu guztiak ezagutzen du, Arantxa URRETABIZKAIA, oso prosa arina eta soltea daukala. Bueno, badaude gehiago, baina gehiago esaten badut baten bat ahaztuko dut eta hori ezta kontua ez !


– *Orain arte Laura MINTEGI idazlea ezagutzen saiatu gara, baina idazle bat ez da inon hutsetik ateratzen, irakurketen bitartez hazi behar du. Zuk zer jaten duzu ?*

– Bueno, azken liburua ? Azken liburua izango dira, normalean hiru edo lau irakurtzen ditut batera. Orain momentu honetan eskuetan daukadana Indio baten «Los hijos de la medianoche» da. Baina, behar bada, nik gehien irakurtzen dudana izan da filosofia eta siikologia, betidanik. Ez da gauza normala, baina hamabost urtekin Nietzsche, eta Unamuno, eta Shopenhauer, Aleman gehienak banituen irakurritu. Ni ez naiz inoiz izan pertsona oso normala, ezta ? Orduan gauzak horrela ulertzen dira ; gero prosa idazten hasi nintzenez, ahaztu dut esate poesia asko ere irakurtzen nuela : Damaso Alonso, Borges eta..., ba, konturatu nintzen prosa asko irakurtu behar nuela. Euskaraz jakina, hizkuntzarekin kontaktuan sartzeko, batez ere kastelaniaz. Prosiaren artean gustatzen zaizkidanak izango dira nobela kontunbristan Flaubert, «Madame de Bovary» izugarritzko liburua da, Laurence Durhell, Mario Benedetti, Julio Cortazar, Garzia Marquez ere bai. Bueno, uste dut denetarik irakurtzen dudala, baina hori bizio bat da. Gauza on bat apreziatzeko, gauza txar asko irakurri behar da, orduan izugarritzko liburu txarrak irakurri ditut, izenaz ere ez naiz gogoratzen, baina irakurri bai...

– *Autore horien irakurketak zerbait influentzia badu zure idazteko moduan ?*

– Ba, batzuetan gertatu zait, igual liburu bat amaitu eta, idazten hasten nintzela idazle horrek bezala. Hori gertatu zitzaidan Patrizia Highsmithekin. Esate baterako, hori etzait inoiz gertatuko Marguerite Yourcenarekin, estilo oso desberdina delako. Emakumezkoak ere irakurtzen ditut, Virginia Woolf etab..., gehiago ikasteko. Baina normalean, egiten dudana da, liburu bat asimilatu izan arte ez dut hasten ipuin edo poema berririk, bestela influentziak oso nabariak litza teke. Egin nahi dut, bueno, pot-pourri bat, eta guztiak irakurri ondoren ba niregandik ateratzen dena. Ateratzen den hori, edozer hori batek daki zer dan...

Laura Mintegi
maiatz. 3



"lehenago ni naiz, eta gero literatura. Orduan zoriona ematen didan neurrian segitzen dut."

– Erreferentzien eta bere biziaren artean nola ibili behar du idazleak ?

– Bueno, ba, lehenago bizi behar da ; hori inportanteena, liburuak oso lagun onak dira, baina azken batetan nor berak ematen du barruan daukana. Eta irakurtzen duen guztia barruan daukanarekin nahasten da, eta orduan ateratzen da. Askotan pertsona bat, unti batekin konparatzen dut : gatozanean ez daukagu ezer, esperientziaz betetzen dugu pertsona baten bizitza, eta eman ahala hori bete behar da. Zerbait idazten duzunean, zure bizitzaren zati bat uzten duzu paperean, eta hori bete, regeneratu behar da berriro, bestela, azkenean hutsik sentitzen zara. Ez daukazu ezer esateko, amaitu da esan behar zenduen guztia. Inportanteena da bizitzea zentzu guztietan, eta zoriontsu izatea. Esate baterako, kalterik edo ez beharrik ematen balit literaturak, utziko nuke. Lehenago ni naiz, eta gero literatura. Orduan, zoriona ematen didan neurrian segitzen dut.

– Idazle batzuek diote behar dela guti idatzi baina ongi... beste batzuk asko idazten dute. Zuk zer pentsatzen duzu hortaz ?

– Buuuf... Bakoitzak dauka berea ezta ? Nik admiratu egiten ditut asko idazten dutenak. Ni inkapaza nais, ez naiz gauza. Arratsalde oso batetan folio bat nere gustora betetzen badut, pozik. Eta normalean, buuuf !, asko kostatzen zait, eta ez dut amaitutzat ematen lan bat guztiz zikinduta dagon arte : boligrafoarekin hemen fletxa bat, hor deia, hemen zikin, eta han gainean beste hizt bat, eta atzeko partean beste bat, eta beste nota, oso zikin eta oso lohiturik dagoenean, orduan ba, hau da nirea !

– Eta zure harremanak irakurleekin nolakoak dira ?

– Espantosoak. Oso txarrak. Norbaitek esaten didanean : «zure liburua irakurri dut !» iheska eskapatzen naiz. Konbentzituta nago, pertsona batek, nire liburua irakurtu ondoren : «uuuf ! baina neska hau ez dago ondo birutik !» pentsatu behar duela. Orduan ez dut nere irakurlerik ikusi nahi, lotsatu egiten naizelako...

– Ehun metrotara ihes egin baino lehen, guk zure liburua leitu baitugu, Laura zein dira zure gerorako proiektuak ?

– Bueno, liburua atera ondoren gauza bera galdetu zidaten, eta nik esan nuen : nobela. Hori da guztion ametsa ezta ? Badauzkat sei, zazpi, zortzi edo hamar nobeletarako proiektuak... (irriz). Ideiak etzaizkit falta. Eta hasita behar bada bi, baina amaituta bat ere ez. Horrek esan nahi du, segitzen dudala ipuinak idazten, denbora asko kentzen didala artikuluak idazteak, gustatzen zaidan arren ; nobela baten tzat behar dut lasaitasun mentala, konzentratuta egotea. Eta eguneroko dinamikaz, eguneroko mobidaz ezta batere errexa. Baina egingo dut inoiz, behar bada zahartzaroan, edo seme-alabek libre uzten nautenean, lehenago egingo ditut edo ez ditut egingo eztaikit, igual bai, nobela bat egingo dut. Etorriko da !

– Agian etorriko da ! Milesker Laura...

– Zuei, eskerrik asko....

I.B.
Algortan, 1984eko Abendoa.

BI HISTORIA, KOMERIA, MISERIA.

Laura Mintegi →

BI HISTORIA, KOMERIA, MISERIA

Zuk ez duzu nire lagunen historia ezagutzen, ezta ? Beste edozeinena bezalakoa da, misteriorik gabekoa. Amodio frustratuak, esperantza galduak, norberaren zeruan hodeiez eraikitako mundu faltsuak...

Nire lagunak arruntak dira, grisak, Heurak bezalako gizakiak dozenaka ikusten dira kaletik. Autobus, tren edo metro bateko anonimatoan daudenen artean, nire lagunen historiak infinitoki errepikatzen dira, nire lagunak horixe direlako, zu eta ni bezalako gizasemeak, baina agian zorigabeagoak : izenik bakoak.

Aspertuko zaitudalako susmoa dudan arren, momentu honetan zerbait hobea egiteko ez baduzu, jazarri hemen, nire ondoan, eta kontatuko dizudana entzun ezazu.

A ! zerbait esaten ahaztu zait. Nire lagunak bi dira, bakoitza bere arazoaz, gizezkoa bata eta emakumea bestea. Beste ezaugarririk ezin niezazuke eman.

— 1 —

— Maitia !

—

— Maite zaitut !

Eta berriro errepikatu zuen. Zazpi aldiz aste honetan. Bakoitzean pertsona diferente bati. Monotonia barik, doinu eta esanahi ezberdina emanez. Zaharetik berria sortuz, eza-gunetik berritasuna asmatuz.

Gelako argitasuna exkaxa zen, bestetan bezalakoxea. Apenas bereizten ziren ohearen ingurumenak fondo beltzetik. Bataila baten ondorengo logikaz, arropak, koloretakoak eta zuriak, azken hauexek nagusi, lurretik, aulkitik eta ohearen bazterretan nabaritzen ziren, erritual erotiko baten antzera ; ordu batzu lehenago gela berean egon zen zeremoniaren aztarna naturalak.

Ezer gutxi bereizten zuen gela hau beste edozeinetatik. Aspaldian maitasunerako kabia bihurturik, ez zen ez hotza ezta beroa ere. Ormak ilunak ziren, enpapelatuak, pisu alogatuetan egoten direnetarikoak, paper koloredun itzusi-nazkagarriak, irudi geometrikoak josirik ; gelaren argitasuna irensten duten horietarikoak. Logabeko gau luzeetan, pertsiantik sartzen diren marra dizdiratsuen argitan, irudiaren zehaztasun aspergarriak, behin eta berriro bistaz errepasatu ondoren, orma zuri-zuria ikusteko premia senti erazten duten mota horretakoa.

Ormen arteko espazioan, ohea, apalnahahaia, aulkia, bi besaulki, eta besterik ez.

Ohean bikote bat zetzan. Gizezkoa izerditsu, beroturik, gozatzen. Andrea, ia ez zen bestearen azplan nabaritzen.

Gizonak aspaldian galdu zuen ohekidearen izena esateko ohitura. Gehiegi kostatzen zitzaion aurreko orduetako gogoramenetan izen ezagun bat gogoratzea. Aspaldian erabaki zuen «maitia» soilik esatea. Errazagoa zen, eta erakargarriagoa, tiragarriagoa, zergatik ez.

Erritualzale amorratua zenez gero, ohekidea besarkaturik, estuki erantsirik, iraun zuen, haragi kontaktu goxoan. Lanaren ondoko deskantsu erdietsia atsegin zitzaion.

Neskarangandik alde egin balu, ezezagun horrekin han, oheraturik, egotearen zentzu falta, nabarmengarriagoa zitzaikeen eta. Inoiz ez zion maitasunaren ondoko zigorro erretzeari lekurik eman ; zigorro hori hoztasunaren ezaugarritzat hartzen bait zuen, nahiz eta bere ezpainetatik bestea- renetara pasatu.

Ahur beroaz, bere ondokoaren ile leuna ferekatu zuen, agian automatikoki ; baina emetasunez, goxoki, ile hori zer koloretakoa zen gogoratzen ez zuen arren. Desira hutsez, gustora egoteko desira soilez, laztatzen zituen ile horiek, emakume larru hura, eta aditua ez zenak, ezin zezakeen laztan horietatik maitasun sentimentura dagoen alde urria igar, maitasuna adierazteko moduekin nahas bait zitekeen.

Elkarri lotuta jarraitu zuten. Altxatzeak eta sukaldetik ura ekartzeak, momentu horretantxe desiratzen zuen moduan, momentu batez aldentzea, eta gero berriro ekarri ondoan egotea, beharbada berbetan, suposatzen zuen, eta ordu eta egoera hartantxe, aurreko guztiaren azterketa, erreazioen hausnarmena, motibazioen azalpena, ekarriko zituzkeen eskutik, erremediogabeki. Horrelakorik nahi ez zuela argi zekusan.

Egote soilari jarraiki zion, pentsatzeke, hurrengo orduetarako planik egin gabe, nahiz eta jakin, eta ondo jakin ere, momentu horiek errutinaren itsaso zabal batetan galtzen diren orduak zirela.

Geldiro janztea, fikziozko maitasun Irreal mantentzea, berriz ikusteko esperantzari atea zabalik lagatzea, izango ziratekeen bere maitasunak konponduko zituzkeen arazo arruntak, aste horretan beste sei aldiz egin zituen mugimendu mekaniko berberak. Horrek ez zion axola. Arlo horretan, ez zituen besteek dituzten problemak. Jatetxe dotore batetan bazkari pantagruelikoak egin ondoren, jaka jarriko zukeen bezalaxe, ardurarik gabe, ipiniko zituzkeen gero prakak, aurrean egindakoari galderarik planteatu gabe, erantzunik ez zegoelako.

Zergatik pasatu dut gaua hemen, zergatik ihardun dut neska honekin, zergatik jo dugu larrua desioz... galderok ez zuten arduratzen, ezta ere zergatik bilatzen zuen gauero emakume narru leuna bere ondoan etzan zedin. Guzti horrek ez zuen garrantzirik. Axola zitzaion bakarra, erazten hasten zen momenturik, berriro arropak jartzen hasten zen arteko epean gertatzen zena zen.

Lehen begiradek, keinu motelak eta konbentzionalak, harremani hasiera emateko prozesu ez-zuzenak, oheraino eramaten zuen bide bihurriak... guzti horrek ez zuen inolako inportantziarik.

Kirolari baten prestakizun faseekin gonbaratzen zituen ; inork ikusten ez duena eta guztiel suposatzen zaiena. Bestela, nola aurkeztu lehiaketetara, nola azaldu burua azken probara ?

maiatz. 5

Bere buruaz seguru sentitzeko beharra zuen. Azken momentuan egoerari erantzuten jakingo zuela. Ez zuela atzera egingo. Berak, sexualki, esateko zerbait ba zuela. Hori zen kontua. Ez al zen gizona ? Ez al zuen emakume batek behar zuen beste emateko ahalmenik ?

Beso sendoez inguratu zuen izenik gabeko neska, bere gorputzaren kontra zapaldu zuen estuki, kabi beroa eraiki zion goiko eta beheko izaren artean, ohearen inguruntara mugatzen zuen irla lizunean. Beste ordubete iraun zuten honela, isiltasun osoan, izenik ez dagoen munduan hitzen beharren ez bait dago.


Azkenean, ordua pasatuta, geldiro altxatu zen ohetik. Neska, bekokian musukatu zuen. Honak begiak itxita zituen. Zabal ez zitzan, oso astiro eta isilean, arropa jantzi zuen, prakak, alkondara, gorbata, jaka. Gelatik irtenda, komunera joan zen, eta han zegoen ispiluan, berriro garbitu, koloniatz burua busti, eta ongi orraztu ondoren, berriro itzuli zen gelara.

Izarak kenduz, neskaren gorputz biluzi ederra ikusi zuen. Orkatilatik plastikozko tapoi txikia kendu eta segundu gutxitan, larru gaztearen freskotasuna zimurrez bete zen, txikiagotu, idea galdu, ezgizatu, desagertu egin zen.

Zapatak gordetzeko bezain txikia zen kutxa batetan gorde zuen izenik gabeko neska maitagarria.

Hainbat kutxa pilatzen zen armairu batetan laga zuen kajatxo, amoroski.

Gero, atea zabaldu zuen eta kalera joan zen.



Izaren azpian sentitu du bere gorputza, gorputz bero maitagarria, berarengana hurbilduz, hurbildu nahi ez balitz bezalako geldotasun berberaz, ume jolasetan bailegoen. Eta gorputzaren beroa sentitu du lepoan, atzean, bere bihotz tapudak koltxoi gainean.

Ez du engainatzen. Deseiatzen du. Badaki, deseiatzen du eta gau oro eszena berberean dihardute. Gizona emakumearengana hurbilduz, eta hau berarengandik urrun, lokartuarena eginez.

Gauero, lotan dagoela pentsatzen duenean, besoen artean hartzen du preso, bularraren kontra ipintzen dio aurpegia, musua lagatzen dio bekokian, musu umela eta luzea.

Gauero bihotzak traizionatu eta lasterketa zoroan darabilkio. Gauero salatzen da dardar basatia menperatzen, eta lortu egiten du... maiz, gehienetan, ez beti.

Lortzen ez duenean, elkar maitatzen dute, basatiki, errabiaz, inguratzen dituen munduari dagokion legez, araurik gabe.

Baina ez, ez lioke bere leihoa ireki nahi, hotz dagoelako, hotz uzten duelako, berotasun iturria izozturik sentitzen duelako. Ez du betetzen, ez du ulertzen, ez dio barruaren giltza eman nahi. Nola azalduko lioke bera ikustean, bai, benetan, poztu egiten dela, bere musuei ezti gustua hartzen diela ; baina... gorputzak, irrazionalki, ezetz esaten diola ? Nola explikatuko lioke errefusa ?

Berak jakingo balu beste gizonen besoetan urtu egiten dela, etxetik kanpo maitasuna gogoz egiten duela, ordutan eta ordutan gozatzen duela larrualdian, emakume izateari zentzua hartzen diola... baina gizon horrekin, bere senar maitagarriarekin, ez du desiorik sentitzen, ez du ia inoiz ere gozatu, gaindi ezinezko hesi etsia eraikitzen zale, bien artean. Nola azaldu ? Nola ulertu beronek ere ?

Aste baten zazpi egunetan, hilaren bost asteetan, urteko hile guztietan, urtez urte, gorputz bat bestearen ondoan, baten berotasuna bestearen kontaktuan, erremediogabeki, malefizio baten fruitu ballitzen. Perseok kateaturik sentitu behar izan zuen zoritxar berberaz. Sisifok mendi gainetik harria aldatz behera nola jausten zitzaion ikustearen etsipenaz.

Ohe batetan, hilda dauden bi gorputz antzutatik bizitza sortu nahi, eta ezin.

Eta senarraren ispiluan begiratuta, bera, emakumea, ez da emakume sentitzen, esposa baino, porrot egin duen emazte antzua, bizitarik sortzen jakin ez duen haragi alperrikaldua.

Emankorra izatea eskatzen ziotelako, amak, senarrak, porteroak, pelukerian, gizarteak... «zenbat seme-alaba duzue ?», «ez duzue umerik ?», «Ez zaizkizu umeak atsegin? «Oraindik familiarik ez ?», eta erantzunak ezpainenetan izozten zitzaiozkion, gorrotoa gero eta hobeto ezagutzen zuten ezpain iharretan.

Lasaitasunez, buelta erdia eman du ohean, senarra dagoen kontrako alderantz, eta egun batzu lehenago sentitu duen gizon gorputz beroa gogoratu du.

Hainbat arratsaldetan, pelukeriara joateko alperrikako ordutan, edo goizetan, erosketak egiteko orduan, senarraren ohetik altxatu, jantzi, apaindu, eta ordubete beranduago berriro erantzi, etzan, bere senarrarena ez zen beste ohe batetan, hotel merke baten zirkulu sotilean, izen faltsuen pantaila atzean.

Eta hamaikagarren eskuko ohe honetan, senarraren ohandzean zeukan gauza berbera, errutina —ilusioen gorpua—, topatu duenean, berriro aldatu, maitale berria ezagutu, beraren gorputza inguratuko duten beso lizunak bilatu, maitatua sentitu... tristeki, patuaren preso.

Egun batetan, beregan, zerbait desberdin igarri duen arte. Emakume izatearen seinalea hileroko zitara ez da ailegatu. Ilusionaturik, ezintasunean sinestu nahi izanik, medikurengana joan da, eta mirariaren proba eskatu dio. Baina adina makur gertatu zailo. Emakumea bai, baina ama... ama ez da, jadanik, inoiz izango ■

AUXTIN

IHESKA LOARI,

miseria maskapean gordea,
nigar egin dut karrikaz karrika,
xingar eta amodio galdeka,
izarrek zilatu arte zerua,

orai, suaren ondoan,
suarekin itzaliz noa,
ordainduz ikuzkiari, bereak dituen, neure arraioak,
haizeari, bereak dituen, neure azken ke karrasiak,

iheska loari,
lerratuko naizelarik,
basamortuko ixiltasunera,
beharba, amets eginen dut,

zuhaitz ostoa bat zela,
lur huntako neure izaitea,
uri ttintten ritmoa, neure musika,
edoien mugimendua, neure pentsamena,

nahiz berant etsia dutan,
emeki, begiak
zeargitzen dauzkitan
egun berria,
noa iheska... loari,..i..heska...lo...a...ri, ...i....hes....



Auxtin

J.L. BORGES

BESTE BURUZ-BURUZKO GUDUA

Badu aspaldi Carlos Reylesek, Uruguaitar idazlearen semeak, historio hau Adrogen kontatu zidala, udako astiri bero batez. Nere gogoan, orain, herria luze horren amaieraren orroitzapena, eukaliptus usainarekin eta txorien kantuekin nahasia dago.

Beti bezala, gure bi aberrien historiaren loturetz mintzatu ginen. Erran zidan, menturaz, Juan Patrizio Nolanetaz aipamenak entzunak nitzukeela, harek gizon langile, arrailari eta kokin fama zuenaz geroz. Gezurka bai ihardetsi nion. Larrogei ta hamar urteen inguruan hila zen Nolan, baina jendeak hari pentsatzen zuen lagun bat balitz bezala. Etsaiak ere ukan zituen bistan dena. Carlosek gertatu zitzaion ipuin bat kontatu zidan. Gauzak Mantialesko borroka baino lehen pasatu ziren; protagonistak Cerro Largoko bi gautxo izan ziren: Manuel Cardoso eta Carmen Silveira.

Nola eta zergatik sortua zen beren arteko gorrotoa, edo herra? Nola berridatzi mende bat berantago, bi gizon horien bizitza ilunak, beren azken buruz-buruzko borroka izan zelarik ukan zuten fama bakarra? Reylezen aitaren morroi batek, Ladere-txea izenekoak, «tigre mustatx bat zaukana», ahozko tradizioaz, nik haietan gehiegi sinetsi gabe, ahanztea eta memoria biak berdin sortzale direnaz geroz, idatziko ditudan detaile batzu bildu zituen.

Manuel Cardosok eta Carmen Silveirak larreak elgarri hurbil zituzten. Gorroto baten sorrera, beste pasioneak nola, beti misteriotsua da, baina oraingoan ahalezkoa da, sortu zela abere ez markatu batzuen gainean, edo Cardosoren zaldia Silveirak sorbalda kolpe batez desbideratu zuela korrika batean zela zio. Izan zaitekeen ere, hilabete batzu berantago lekuko ostatuan biek jokatu zuten karta partida luzea; Silveirak karta altxaldi bakoitzean bere laguna goستن zuen, baina azkenean zituen diru guztiak hartu zituzten. Diruketa zintan ematean, ukan zituen erakaspas ederen gatik Cardoso eskertu zuen. Orduan, uste dut, herraz eta kexuz kasik borrokatu ziren biak. Partida zaila izan zen: ugari etorri begiraleek berezi zituzten. Memento hartan, horrelako ixkanbilak, gizonak gizona kitzikatzean, nabalak nabala deitzen zukeen; historio honen berezitasuna hau da: Manuel Cardosok eta Carmen Silveirak mila aldiz ukan zutela gudukan artzeko estakurua, mendian, goizean, arratsean, eta ipuin honen bukaeran baizik etzirela elgarri neurtu. Behar bada beren gorrotoa bizitza pobreen ontasun bakarra zuten, eta egunetik egunera aberasten saiatzen ziren. Ohartu gabe, biak gorrotoaren bidez, bat bestearen esklaboak bilakatuak ziren.

Segituko duen historio honetan, ez dakit gehiago gertakariak kausak edo ondorioak diren. Cardoso, maitasunez baino eneguz auzoko Serviliana izeneko neska gazte batetaz maitemindu zen; Silveirak hau ikasi zuelarik, neska kortesatu zuen eta bere baserri-rira ekarri. Hilabete batzuren buruan etxetik haizatu zuen, asea baitzen. Emazte gaixoak Cardosoren geriza eskatu zuen; honek neskarekin gau bat iragan zuen, eta eguerditan kanpora igorri: etzituena bestearen ondarran nahi.

Servilianaren ondotik, edo aintzinetik ez dakit, gertatu zitzaienten zakurraren afera. Silveira biziki atxikia zen 33 izenaz bateiatua zuen zakurrari. Hila aurkitu zuen erreka batean. Silveirak laster pentsatu zuen norik pozoindatua zion.

1970eko neguari buruz, Aparicioaren Iraultzak, karta partida egin zuten ostatu berean atzeman zituen. Gerilero talde baten buruan, Brasileno beltzaranak publikoa predikatuz sustatu zuen, aberriak beren beharra bazuela, gobernuaren tirania ezin onetsizkoa zela; xingola xuriak banatu zituzkien, eta deus ulertu etzuten prediku horren ondotik, denak berarekin eramane zituzten. Ez zietan ere familien agurtzeko astirik utzi. Manuel Cardosok eta Carmen Silveirak etzuten axolarik; soldadoaren bizitza etzaitzekeen gauxoarena baino zailagoa. Sakuetan kanpoan lo egitera moldatuak ziren; aberreak hiltzen usatua den eskuari etzaio hainbeste kostatzen gizonak hiltzea. Asmakizun faltaz beldurrik edo urrikirik etzuten senditzen, nahiz eta beldurra nabaitu zuten lehen asaldotetan. Kabalaria gudura doalarik beti etzuten dira estriboen eta harmen otsak. Hastean zauritua izan ez den gizona indartsua senditzen da. Etziren beren herriaz damutzen. Aberri ideia bera arrotz zitzairen; txapelan zuten xingola xuria gatik, etzuten axolarik alderdi batetako edo bestekoa izateaz. Lantza batekin zer zegiketen ikasi zuten. Gibelaldietan eta aintzinaldian, ohartu ziren ondarrean, lagun izateak ez zituela etsai izatetik debekatzen. Hitzik erran gabe elgarren ondoan borrokatu ziren. 1871eko larrazken odeitza beren ibilaldien azkena ikusi behar zuten.

Borrokak etzuen oren bat baino gehiago iraun, berek ezagutzen etzuten toki batean. Izenak, gero jartzen dituzte historiagileek. Bezperan, Cardoso lau zangoka buruzagi baten oihal etxolan sartu zen, biharamonean irabazle baldin baziren zintzurra mozteko presuner bat utz ziezon eskatzeko, ez baitzalien zein efetu egiten zuen norbaiti zintzurra mozteak. Buruzagiak fabore hori hitzeman zion, gizon balios agertzen baldin bazen borrokan behintzat.

Zuriak ugariago ziren, baino gorriek, armamendu hobeagoa zutenaz, zitzifikatu zituzten, muno apal batetik sua botatuz. Debaldezko bi kargaren ondotik, munoaren kaskora ezin helduz, buruzagia zauritua zen eta errenditu ere. Berak galdeginik hor be-rean bururatu zuten.

Gizonek armak irabazleeri eman zituzten. Juan Patrizio Nolan Gorrien kapitainak, solas handitan, presunerren hiltzea manatu zuen. Cerro Altokoa zen, Cardosoren eta Silveiraren arteko herra etzizaion hain arrotz : biak deitu zituen erranez :

— Badakit elgar hastiro duzuela, eta aspalditik buruz-buruzko guduka baten zain zaudetela. Zuen-tzat badut berri on bat : eguzkia sartu baino lehen jakiten ahalko duzue zein den zuetarik azkarrena. Lepoa moztuko dizuet, eta gero lasterka abiatuko zarete. Ikusiko dugu orduan zeinek irabaziko duen.

Soldadoak presunerrak etxoletara eramane zituen Kanpamendu osoan, hedatu zen berria. Nolanek erabaki zuen lasterkaldi hori hiltzeetarik landa gertatuko zela, baina soldadoek jakin arazi zioten haiek ere korrikaren lekuko izen nahi zutela eta parioak egiteko gogoia zutela. Nolan, gizon zuhurra, soladoen desireri plegatu zen ; dirua pariatu zen, jantziak, arma zuriak eta zaldiak, gero alarguneri eta dretxoa zuteneri emanak izanane ziren gauzak. Usaian baino beroago zegien ; gertakariak lauak arte gibelatu ziren, bakoitzak loaldia egin zezan. Nolanek, Argentindar ona baitzen, oren bat baino gehiago idurika arazi zituen. Beste ofizier batzurekin garraipenaz mintzatu bide zaitekeen ; matca eskuan laguntzalea joan-jinka ari zen.

Bidearen bi aldeetarik, oihal etxolen luzadan, presunerrak lerroka zain zauden, lurtean jarririk, zaintzea erreztearren eskuak bizkarrean lotuak. Batzu laidoka ari ziren, eta batek Gure Aita hasi zuenean denak harrituak gelditu ziren. Etzezaketan erre bistan dena. Etzuten lasterkada hortaz axolarik, baina denak beha zauden :

— ni ere biloetarik hartuko naute, zion enbidios batek.

— bai, baina beste guziekin batera, ihardetsi zion besteak.

— hi bezala erantsi zuen batek.

Sargento batek bidean trebeska marra bat formatu zuen, bere ezpatarekin. Cardosoren eta Silveiraren eskuak askatu zituzten, lasaiago laster egin zezaten. Bien artean bost metro baziren. Zangoak marraren gainean pausatu zituzten : ofizier batzuk ez flakotzeko eskatu zioten, pario lodiak baitzituzten eginak.

Zintzur-mozle gisa Silveirarentzat sortea Pardo Nolan hautatu zuen. Honen aitamatxiak kapitainaren familiaren esklabo izan zaitezkeen, izenak frogatzen duen eran ; Cardosok ohizko zintzur-mozlea ukan zuen, Corrientesko gizon zahar bat, kondena-tuen batzeko hau zion usaian sorbaldan hunkiz : «kuraia lagun ! Emazteek gehiago sufritzen dute erditzen dutenean !».

Buruak aintzinatuz, bi gizonek keskati etzuten elgarri so egiten. Nolanek seinalea eman zuen.

Pardo segidan hasi zen lanean, eta zuen jokoaz urgulutan sarturik, Silveirari beharri batetik bestera zoan sarraski bat zegion ; Corrienteseko gizonak zauri txiki bat baizik etzuen zilatu ; gizonek urrats batzu egin zituzten eta lurrera erori ziren. Cardosok bere erorketan besoak aurrera botatu zituen. Irabazia zuen, baina dudarik gabe etzuen sekulan jakinen.



J.L. BORGES.

maiatz. 9



GOTZONE SESTORAIN

GOTZONE SESTORAIN ZABALETA

Leitzan (Nafarroa) jaio zen 1965 urtean, irailaren hogeitabostean. O.H.O. bere herriko ikastetxean egin ondoren, Iruinara jo zuen batxilergoa egitera. Orain Donostiako EUTG-en Euskal filologia ikasten ari da eta aldi berean euskaltegi batetan lan egiten du irakasle bezala.

Hamasei urte zituela hasi zen poesigintzan ; 1983 urtean, Donostiako liburutegi munizipalak gazteentzako antolaturiko lehiaketan parte hartu zuen sari bat izabaziz.



Egun batean zirenak
gaur zirbila dira.
Bai, izan ziren
bainan orain
abenduko horma txuria
beltza da.
Zozoak ere kantatu zuen
egun urratzea baino lehen
bainan gaur
ixiltasun erraldoia jabe da.
Eta arkaitz sendo hark
galdurik bere irmotasuna
dardaraz dauzka
bere gailur eta babesak ;
haritzak bazuen
handitasunaren ereinotza,
gaur ostera,
egun triste eta hits honetan
gaitz gaizto batek jota
iherturik dago.
Egun batetan libre izan zintzen
zoritxarreko herio hondatzailea ordea
zaizue gaineratu.
Gizonaren hatzaparrak
bazter guztiak ditu ukitu
bera iragan leku orok
gaixo dira gelditu ;
Ur gardenetako lats ozen hark
dariozkila
hain miresgarri ta lirain zena
orain hilzoriko eguzkia dugu.


Urretxindor kantore
monotoniaren haustaile.
Hire xirularen
hatz ukiezinak
ez dira
gorrotoaren, ezinikusiaren,
gezurraren...
deihadar desorekatuak,
harmoniaren eta bakearen
ispilu tipilak,
jantzi zail eta
ulerkaitzetan erantziak
baizik.



Neurrigabetasun zelai zilareztatua
zeru itun eta borobilpean etzina
nere so urriaren
bakezko aintzira geldia.

Kaioen hego konpasatuak
elur maluta txuriak bailiren
urduritasun sakonaren
orraze igikor dira ;
uhin hautsien apar jarioak
aldiz
ixildunearen balada suntsitzaileak,
arkaitz sabel zigortuen
gatibotasuna.

Betsein ttipi batean
zenbat edertasun
isladatua !
Iragana, orain, geroa
betikotasunean
halako laket liluragarrian
ittoa !



Inolaz, bai ezin esan
nahiz hain maite izan,
ene barruko hegazti basatia
inoiz ez, gatibotasunari atxekia.
Eguzkipean
urrezko erleen kontzertu agortezina,
haritz lerdaren, egunez egun
nekez elikaturiko mezu oratua,
mendi gailur elurtsuen
izarniadura hozkildua
bezainbat,
ezinezko amets hori,
haur maite.
Edertasunaren maitale nauk
gardantxiloa bere kantuz lez
maitasunaz bainauk
maitemindurik.

Agur,
amodio kuttun horri,
agur,
haizeak daramatzen
irrits, musu, laztan... ihertuei ;
bainan ez eskatu
ahantzi ahal zatzaidan,
zeren nere izatearen enbor sendoan
zure izenaren inskribua,
sekulako
zauri orbaingua
izanen bait da.
Agur, bai !
udaberriko hosto muskerrei
datorkie udazkena,
gureari ere maitea,
azkena,
ostera eziezaidazu
uka maitatzea.
Nere betseinen islada gorria
eguzkiaren sugar garailea
zena,
dagoeneko,
neguko aintsigar zipotzak itzalia.
Lozorroan,
nere bihotz samindu hau
amodiozko ametsen besoetan
egun berri lilituaren haiduru,
esmeralt-zola itxaropentsuan
maitasun berriaren kimuak
berriro daitezen erna.

Agian atzo, herenegun...
dagoeneko hamabi ilargi maltzur
borobilek
hamaika iseka urdin zerigula,
iraganak,
honez gero lur masail tipilan
ziklo orekatuaren lau aroen aztarnak
ez ezik,
kristalezko eremu bailitz,
sutegi iragankorrek igorri
hainbat atomo suspertzailetan birrindunko
ezin konta ahalezko pritz goriez,
erakarmen magnetikoz haztaturik ere,
igerritzen da.
Urte bat, bizitza bat,
orduan,
gaur ez bezelako egun hartan,
zutaz,
nere bihotz maitasun oldarkorrek
odol tanto bakoitza pirlpil zeukan,
poliki pitzatzen joan den mendi sua
errauts bilakatu arteino.
Gaur, aldiz,
dena oroimen zait,
zorabiozko ilunabar honetan
itsas uhin kementsuen astintze gupidakaitzez
ezabaturiko amets apartsu ete idilikoak
bailiren.

Ez, ez naiz goibel,
 maitasun-minak urratu
 hasperen ziztularien ozentasun latzari
 ez bainintzaion murriztu.
 Hona hemen itsas ertzean
 geldirik,
 sakontasun aldagaitzan soa xahaturik
 zentzuak oro balada etengabeaz
 liluraturik,
 egurats gardenaren hatz izoztuek,
 hilotz tentea banintz, ausartki
 nere soinaren gune ezkutuena ere
 xurgatzen didalarik.
 Gau beltza. Intziri zorrotzek
 goi zolu itzalduan ziztatuz,
 otsoen eguzki zuriaren
 haiduru dira.
 Zenbat edertasun hozkildurik
 nere maite espa bakarra !

Bi orbita biribil horien
 aintzira ilunean urperaturik
 zure leize sakonetik
 dagizun pena ororen
 portzelanazko pitxarra
 nahi nuke,
 malko lizun eta hits horiek
 arintze arren.

Kale ez gizakorrek zeharkatuz
 burnizko gogortasunez gorpuzturiko
 begi hilak,
 herioaren erro irmoak,
 zuhaitz izarrak,
 irripar eta maitasunezko
 xirulak ere kolpatuz.
 Bolizko begiratu koilatuak
 gizatasunik gabeko mutur kirastuetan,
 zuen erasoaldiak direla eta
 nere anima zartatu
 besterik ez dezute egin.
 So egin du
 gizonen bularpean
 eta bertan
 ez dut aurkitu
 ez xamurtasun lehiarik
 ez bizitzaren ernatzerik
 harrobitik ez bait dago
 gozotasun ziriorik piztutzerik.
 Bailarak zehar
 heriotza eta tristezia
 ereinik
 ezin ahal bildu
 Ez !...
 doluminez
 nora joko dudan ez jakinez
 negar, malko etsituak dagizkit.
 zotin gorrituak
 haragi gordina zulatzen duten
 etsipenezko eztenak.

Ifar ahairea hautsiz
 urrezko errainu ezea duk
 hire poemen balada,
 burnizko kaxaren gatibotasun
 garratzean
 astiro ehunduriko amaraunak,
 goiznabarrean eguzkiari
 leihoa aurrez aurre zabalik
 mila kristaltxo distiratsutan
 urratuak izanen dituken
 zetazko sare hozkirriak.

Ametsak taju poetikoz hornitu
 ala ametsez tajaturiko mintzaira poetikoak
 ernatu ;
 ez zekiat,
 ez zekiat zer den poema bat
 lelo batek gorpuzturiko bertso mainguak
 edo naturaren errailetatik jaiotako
 erritmo kosmikoa.
 Nik,
 soilik zekiat,
 haran hertsien orlegia laztantzen
 zebilken
 lumazko oihal nasaiak
 badikela bere doinu sakratua
 zuhaitz enborren lerdentasunari
 eta hosto xamurren lehuntasunari
 iltzatzen zaion kantu labaina,
 ixiltasunean erdituriko arnas hauskorra.

Zure gorputzaren gune bakoitzean
 plazerraren garraisia zurrupatuz
 ene hatz nimindoen lehunarekin
 xeratzen nabilkizu,
 zure hatsaren lurrina neuren
 gozotasunez dastatuz.

Zure ezpainen mahats mikatzen
 igerian ez ezik
 aho hordiaharri horren ezetasunean
 txalupa desbideratuaren antzo
 murgiltzen nauzu ;

eta esparen egarriz,
 egarriaren orratzak kilikaturik
 ene begion gezi uhelak
 begi nabar eta goibel horien
 marmari kristaldua ere
 edan nahi lukete,
 orratzen barneratzean
 azken zorion hegatzeari
 zure bihotzaren hegoak
 musukatzekos ere.

Harresien zirrikitu ikustezinetatik
 ihes egiten duten mumurioak
 oinazez ezkuturiko hire ahots ezkutua dituk
 hasperen etsituak
 etsipenez ahultzen doazen zotinak.
 Ahur ttipi honen epeltasunean
 arinduko niake
 hire zama luzearen nekea
 nere begietako izkirietan
 ezezagun haizen arren.
 Etenik gabe laztanduz
 nere ahoaren lurrin irakimarekin
 hire soaren gezi izoztuak
 ur urdinetan urtu nahi dizkiat,
 monolito borobilaren gandak
 mendi muinetako elur amultsua
 itxaropen erreka zaratetsuetan lez.
 Urrutian hagoela diok
 intxaür azala barruan estaturik
 ito arteino estaturiko mendu ukatua,
 itxaroz
 usteltzeko zorian izanik ere
 beti itxaroten.
 Eta nik
 itxarote hutsal hori arakiz
 bada ere estali nahian
 hire gogoak hainbat aldiz
 igurtziriko paradizotik,
 agian inoiz iritsiko ez zaiken
 kantauri mamu zaharraren
 uhin haserreak xeheturiko
 hondar espaltxo hau,
 edo mendi ilunak zeharkatzen dituen
 kotoizko apar geldo eta sorgorra,
 nahiz, zergatik ez,
 langar biziak maitatu
 purpurazko arroxaren lurrin umeltsoa
 bidaltzen diat,
 bidaltzen dizkiat bai,
 bakardade larrienean urkaturiko
 hire ezpainen eta bihotzeko ahortzearen
 bustigarri daitezen.


Hire ezpain borobiletan ikusi nianean
 heriotzaren hutsune hozkildua labaintzen
 iges egin izan nahi nian
 basapiztiak zibilizazioaren basatasunatik lez,
 kolorererik gabeko laino itsuetan
 gal nintekeean beldurrez
 enara heriaren antzera
 eutsi nahi bait nioan
 fantasiaren hego etengabeari
 hegoa hilezkorra bailitz ;
 biok genekiean ordea ezetz,
 arnas mugatu honen ari bakoitza
 banan, banan
 askatzen ari gaituken neurrian
 soinaren eta gogoaren itzal irmoak
 emeki ezabatzen dihoazela,
 laister, minutuz minutu laisterrago
 ispilu misterioitsuaren islada liluragarriak
 hondakin arrunt eta xehetan
 birrindu arteino.

Abendu bilutsiko
 urdin urreztatua busti
 egun horietakoa zen,
 urrezko uhin herabez
 bainatua izan arren
 malko gezi garratzetan
 urkaturikoa,
 abendu bilutsiko
 egun ezin ahantzi hartan
 zen bai,
 portzelanazko bihotz nimino hark
 hesi kateatuez gainerik
 mendi hauen zorrotza ere
 jauziz
 ortzemugaren marra uhelduaz at
 ahaidetu zenean.

Abendu bilutsi ankerrean
 bai.

Eta gauero,
 iragazki azabatxean
 kristaltxo majikoez birrindu
 hutsarte kosmikoan
 ilargiaren danbore izoztuak
 dagizkin hari mehetan
 ditziratzen du
 zure haur begiratuak
 hain hari hauskor eta hozkilduak
 non edertasunaren betile lehun diren !
 erditu zintuenaren masail saminez
 zartatua laztanduz

Eta gauaren hotzean
 mendi elurtuak
 zure ezpainetatik ernatu
 txori berritsuak
 ihintz tanta musikadunez
 ereiten ditu
 zuhaitz larrugorriak ere,
 zure ahots ukatuaren doinuak
 etengabe errepikatzen dituztelarik
 apika
 zure mendekuaren ohiartzunak
 izan daitezken eresi minkatzak.



Otsaila
 otso hila
 otsoak gosez hilak,
 otsaila hile hotz
 izotz matazak
 elurraren mototsak eraso.
 Heltzen doaz,
 badatoz
 otsoa edo artza
 ahoa bete hortz
 goian haizea baita hotz
 eta gosea latza.
 Otsaila, otso hila,
 otsoak goseak hilak,
 non zabilta,
 zeren bila,
 hain aztarri habilak
 sabelaren korapilo zorrotza.
 Otsaila,
 otso hila,
 ailegatu dira
 jadanik
 ez hats, ez hatz
 zer aurkitu lautadara
 agian izanen dute itxaropenik
 erraiak daitezen gozoz.
 Otsaila
 otso hila,
 sabel erraiak mingots
 ja etsiz ohikatuz
 noiz ernatuko diren
 errekatxoan bizi hots
 itxaropen printz daitezen
 liluraz murmurikatuz.



Gaueko itzalen susmo ilunak
 astinduz,
 artizarraren zohardura
 haztatu nahian,
 ez dut aurkitzen hitzik
 nere bihotz-mina orbainduko
 duenik.
 Ele bakoitza, antzua,
 atzipetaz puztua.
 Jadanik nere kantuak
 ez du ahairerik,
 nere negar-zotin idortuak,
 malko minduen urmahel ahortua,
 ez du egarbera honen
 asetasun eztsurik.
 Ez dut, ez dut,
 bakarrik
 bi gorosti-pipitte gorrien
 zorabiozko ihintz labaina
 nere, minberaz ezkotutako,
 aho maiteminduan.



Urrezko goitziri hozkirria
 lurrin gaztez eta bihotz berriz
 bustitakoa, distiratsu
 zirrarez leherturiko masaïl kantarian.

Zure bular gozoan,
 bi ihintz tanta ttipil irristatzen dira,
 gaueko ilunetik urraturiko
 begi, oraindik, lainotsuak.

Begi hauskarak,
 itzal gautiar eta egusentiko
 kontzertu ilirikoaren,
 ezinaren eta nahiaren arteko
 burruka latzean dabilzanak.

Burruka garratz, mingotsa
 etenik gabeko zitzakada sorra,
 betzulo malenkoniatsuetan atxikiturik
 aintzira lizunak bailiren.

Zer dute ene begiok ?
 herriminez, bihotz-minez,
 askatasun-minez...
 ze lor izan da ehortzia.
 Kanta ezin duten
 itsas amaigabeen galduriko
 ezinegonaren artizar goibeldu hauetan ?

Agian, irriki ezinezko batek
 erditzen zaituzte...
 agian, zorotasun ixila
 babesten dezute ;
 Zerk, kristal uhertuok,
 ez dizute,
 eguzkiaren ile agats goriak
 orraz ditzazuten,
 gardentasunaren ispilua izaten ?

Badihoa,
 hor goian
 mendî odolduen zehar,
 lurreko mugalde guztietara
 bere kantu xuriz jantzia
 zabalduz,
 ostondorantz
 hego mugagabea
 hedatuz.
 Zeru zilareztatuan
 galtzen dihoa
 sumaezinezko oroimen irudia.
 Badihoa,
 ametsetan, nola
 laino urdinaren melodia
 ialgitzen den
 nirestuz.
 Hegoa, ostondoa,
 laino ezkutua,
 udazkeneko izara
 mila solas margotuetan
 jalkia ;
 usoaren bihotza
 zorionaren eztanda.

Edertasunaren aintzira orbaingabe
geldo, erdiletako ostondo urdinetan etzaniko
kristalezko hats izoztuei
zure espirtuaren betsein sarkorrek,
maitasunaren eta perfekzioaren egarri,
zein forma miresgarriak
dizkiete egotzi, ukimen guriz !

Zein sentikortasun egarberaren hegoak
zeure eskuen mugikortasun ernea !
Haizearen bular emea barna
ezin konta ahala margo ebakor,
gisa beran
hain ezkutapen erakargarriaz
gorputzuz.

Gorputz biziak, erditzeko garrasi
gorri, ezen, urduri...
zeure haunditasun estaliaren
sortze hilezkorrak.



Ez, ez diat ezagutzen hire izenik
ez zitzaidak axola, ordea ;
haizeak orrazatzen dizkian
limoizko zipriztinak printzaturiko
galburu urrestatupean
eguzkiak umaturiko kafe larrua
itsas bihurriaren bi tanta urdinek
hildokaturik dukena,
kalatxorien hego handiosa bezain
betsein basatiak ezkututzen zizkiatelarik.

Ez, ez diat ezagutzen hire izenik
baina, ene haur hori, nik
bazekiat
begi izu horiek
maixurik, etxerik, mugarik
gabeko hegazti harrapakariak ditukela ;
bizitza giltzarri bakarra izanik
laban zorrotzak bailiren
zenbat aldiz ozkatu dituzue
artalde domatuon panpinak ?

Eta aho erdi irekiatik
amorruren uhin apartsuak
haur ezpainen purpura hautsiz.
Jaio berri hintzanean amatxori
diti unhatuetatik
egotziriko esne zigortua duk,
munduarekiko erdeinu zekenena
nahirik.

Erdeinua erakutsiz,
egunez egun xurgaturiko gezal ozpindua
hire masail erne eta gaitzetsiko
zeinu bakoitzean marratzen zaikena,
agian ez duk izenik ere.

Eta nere jakineztasunean,
hire anonimatuan,
maite haut,
maite haut, bai,
oraindik, mehatxupean
oihan arteko urjauzi orbaingabearen
hauskortasunean
kristal ameslari eta kantarietariko
bat haizena.



ZIENTZIA

sagarra



1980eko martxoaren 15ean, Paueko unibertsitateko anfiteatro nagusiak usaian ez bezalako jendetzea bildu zuen. Erakasle parrasta bat, estudiante andana bat, eta zahar erretretatu multxo handia. Gaiak, egia erran, bazuen behar haina karatera. IDAHOko ikastetxe ospetsuenetik etorri GOLDEN STARKINSON jauna, oren erdi batez, legunki, barabara, sagarraz mintzatu zen. Konferentzia hunkigarria bukatu eta ainitz galdera abil, xotil sortu ziren publikoan.

Hona beraz Golden Starkinson (Ph. D) jr'ek eman hitzaldia :

«Arratsalde on. Nahi dizuet, hasteko, bakoitzak bere baratzean edo auzoko supermerkatuan aurki dezakeen frutu arrunt bat aipatu. I mean the apple, sagarra. Zergatik konferentzia bat egin frutu komun hortaz? Arrazoa ximplea da: lehen xixtan, frutuak berezitasun markaturik ez baldin badi, hurbilagotik begiraturik ohartzen gara krixton garrantzia duela gure gizartean, eta preseski gizartearen historian.

Ohitura denez jakitate zientifiko razionaletan sagarraren definizio zehatza ematen saiatuko gara: frutu hezurdun borrobila, gorria edo horia, sukratua edo minkarra, haragia zuria eta amultsua duen frutua dugu sagarra. Gozo gozoa jateko... Mahastiak (aihenak, hautinak) Europako lurretan hedatu aintzin, bizidunek, bihotzen altxagarri, sagardoa edaten zuten (kind of dirty cidar). Zare batzuetan, sagar ontuak biltzen zituzten, kartierka moztzen eta gero, gaurko egunean mahatsarekin bezala, soana animale batean irakitera utzi ondoan brentsan pasatzen, frutuaren jus alkoholizatu ardiesteko. Munduko asko tokitan usaia hori begiratu dugu, adibidez, Euskal Herrian. Nahi duenak Astigarragako edo Usurbileko sagardotegi industrialak bisita ditzazke, baina kasu ez kupelen artean gal... Arbasoek sagardoa edaten zutelarik ostatuan, beti sosa ezartzen zuten jug-boxean, kornemusak edo txalaparta soinuak entzuteko. Musika tresna horiek giro mistiko bat sortzen zuten... Paue, hiri nagusitzat daukan departamendu honek, sagardi bakarrak baditu oraindik, sagardotegirik ez gehiago zorigaitzez. Labatutun, Lehuntzan, Lahontanen hain zuzen. Uda ondarreran, euskal herriko gazteak badoatzi rito antiegen arabera, sagar biltzera Bearnoko zelai horietara. Lan asko, josteta gehiago: sindikatuak ez diren langileek ez dukete besterik eskatzen. Sagardietan ere gorena, hoberena: zer plazerra, besoen indarraz, sagartzaren puntara iganik, han

kokaturik, beheko teteleak izerditan sagarrekin teman ikustea. Lahontanen lanean aritu herriko bertsulari batek «aldepeko sagarraren adarraren puntan...» abesti famatua asmatu zuen, nagusiaren gordez, belarrean etzanik pausa hartzen zuelarik...

Idahon primary schoolean ginelarik, irailan, urtero, sagarraren alderdi morfologikoa eta biologikoa aztertzen genituen. Nik lauetan doblatu nuen ama eskolako lehen klasea, badakit tradizio bat bilakatu zela sagarraren ordua. Errintsak (Maggie FUCKOV, Nikolas II Tzar tzarraren garaian Leningradetik emigratua) erraten zigan samurkiro, sagarra sukrez, jusez eta bitaminez hantua zela. Haragi zuri gurian bitaminak mikorskopoarekin bilatzeko manatzen zigan. Sei zangodun bat aurkitzean, kaixa ttiki batean kartzelatzen, eta goizero hazten genuen... Aoh! That's enough with my personal souvenirs...

Orain bigarren partean, historikoki konsidera dezagun sagarra deitzen dugun frutu arrunta. Hiru aldiz gutienez, joko inportanta ukan du munduaren kondaira paregabearen zehar, begira:

— Primo, Jainkoaren zeruko paradisuan, bi giza motel baziren izpirituak berritan kreatuak, Adam eta Eba. Zoriontsu iduri zuten, baina suge debruaren konplizitatearekin, Ebak sagarra kroskatu zuen, eta Adamek errabiaturik, jelskor baitzen, osoki jan. Jainkoa haserretu zen, bai gaiztaginak paradisutik haizatzen zituela. Bekatu originala eta bekatu mortalak sortu ziren orduan. Galdegiten dizuet, zer pasatuko zen paradisuan sagartzetik ez baltzan? Ihardespena erreza da: ez genuen guk, oi lastima!, bekatuan biziltzeko atsegirik ukanen...



— Segundo : Isaac Newton izeneko Ingles matematikalariaz mintzatu nahi natzaizue. Behin batean Lololan erromeria zan... Ez, barkatu, engainatzen naiz. Behin batean beraz, Isaac bre baratzean pentsati bazabilan. Nekatua, sagartze baten pean jartzen da. Haize pixkat ere bazegoen. Hona non burura sagar gorri pottolo bat erortzen zaion. Hastean, estonatu gelditu zen, baina laster arrazoinamenduak gainditu zuen : « nolaz eror diteke sagar bat ? ». Bi minutu barne universal gravity delakoen teoria atxemana zuen Newton genialak. Berriro galdegiten dizuet zer pasatuko zen Newton Gernikako Arbolaren maldan eseri balitza ? Etzen lurrean universal gravityrik izango, eta gaur denak, galaxietan zehar airean ibiliko ginateke... Gainera manera hortan, burua zuzen behar baita, etzuen Albert Einsteinek general relativitaren teoria sumatuko.

JAINKOA:

"HAUXE DUK GURE DESTINU PETRAILA!"

— Tercio : 1960 urteetan pop musika loratu zelarik, Rotterdameko ostatu zorritsu batean, Liverpooloko lau mutiko in the windek, love love me do kantatu zuten. John, Paul, George eta Ringo ezagutzen dituzue menturaz ; Beatles taldea diskaetxea formatu zuten, Apple zeritzona, erran nahi baita sagarra. Aitor dezagun, egiatan, Apple'ik gabe etzen Beatlesik izango. Behar bada, hau dugu historiaren alderdi ona, Beatlesik ezean, etzuen morroi batek berrogei urtetan, Zentral Parkeko paletubiartzearen pean Lennon hilen... Historia ordea ez da gustuko dugun erara moldatzen !

Adiskideak, luzeegia iduritzearen beldurrez zuhurki bururatuko dut. Banituzke mila solas interesgarri oraino zuei partekatzeko. Kontseilu bat : sagarraren sinbolo mitikoa ikustean telebixtan, karrrikako erreklametan, astekarietan eta zuen azitetan, pentsa ezazue frutu horrek eduki duen inportantzia historikoari. Azken hitza : sagarra kroskatu aintzin, frutuaren borrobiltasun harrigarrian zilorik badenez begira, harra hortzekin ez mozteko. Komeni da harra sagarrarekin batera osorik iresta. Milesker...»

Hor ordu bat eta erdiz zoraturik zeuden guziek gogotik txalotu zuten. Ez dugu hemen galderen lista zerrendatuko, hala ere, aipatuko dukegu, bere garrantzi dokumentala baduelakoan, Pauko unibertsitateko erakasle betaurreko dunak, Maurice Chevalier frantses kantariaren «Ma pomme c'est tuaaa !» abestiaz, egin komentario bikaina.

Datorren Maiatzen zenbaki batean, beste konferentzia batetaz ariko gara. Honen gaia «Antipodetan nola jotzen duten larrua» ; hizlaria denek ezagutzen dugun Margaret MEAD antropologoa ■



Sanova BEACH.

maiatz. 17

LITERATURA

kamikaize!

Tokio, Kioto, Okayama, Hiroshima : eletroni-ka aurreratuaren eta bonba atomikoaren errauntsak, hirietako gauetan gizonak aloka ditzazketen geishak, mendietako taberna humiletan edan ditakeen sakea, eta arratsaldeko lauetan ritual zaharrak segituz iresten den dutea. Egiatzkoa, Japonian...

Lau ugarte nagusi : Hokaido, Honshu, Shikoku eta Kyushu. 97 milio jende bizi lurraren eta itsasoaren artean ! XX-garren mendean beldur egiten du Japoniak baina, hori segur, beti fazinatu gaitu : Fuji gailur urdinaren ilusioa !

Mongoliako Kublai Khan delakoak nahi zuen bereganatu, Xabierko Frantsesen Jesuistek Shinto erlijioekoak konbertitu gogo zituzten, Inglesek komertzioeko emporiak sortzen salatu ziren, eta bar... Japoniak ateak irekitzen zituen batzuetan, eta bestetan ateak kanpoko airei hersten. Tradizio eta modernitate...

89etik 185era, Fujiwaratarren familia nobleak manatzen du Japonian. Emeki emeki Japoniar kultura berezi bar arazten du, Txinaren influentziak baztertuz. Ordu hartan idazleek paraxemino batzuetan izkribitzen dute, Japoniar idazkera berrian ; lan horiek makimonoak deitzen dira. Laster, katakana eta hiragana izeneko hizkitegiak agertzen dira. Hein batean, Japoniar literatura demokratizazio bat ezagutzen du. Artean, 192an Minamoto Yoritomo generalak Shoguntza eraikitzen du. Kamakurako militarrek, eta haien eskupeko ziren Samuraiek, herria menperatzen dute. Gerla zibil odoltsuen ondotik (ikus «zazpi samuraiak» filma eta obrak) 1333an Ashikagatarren abarrak herriaren giderrak hartzen ditu. Familia hau Kioton bizitzen da, inperadorea hobekiago kontrolatzeko. 1573a arte Japonese kultura loratzen da : Txinatik etorri Budisten sektak emendatzen dira (Joso, Zen) eta herrian bertan zabalduak (Nichiren eta Shinto) bigarren hats batekin indartzen ari dira. Karate, Judo eta beste arte militarrek finkatzen dira. Literatura ipuiez, kondairez eta poesiez aberasten da. Hemen, Hai-Kaietaz mintza gaitzke :

— «Japbyk ibardetsi zuen, konplikatuegi da. Egiatzko Hai-Kai batek ximplea izan bebar du, erreallitatearen gostua eta saldaren samurtasuna. Ederrena menturaz hau daiteke :

Etxexoria jauxixka ari da atarrian.

Atzaparrak bustiak ditu.

Shikiren poema bat da. Atzapar txiki bustien batzak asmakizunaren begiekin ikusten dira. Eta, ordea, bitz gutiz, egun hartan erori euria ere hor dago. Kasik pinu humien orratzen usaina senditzen da...»

(Keruak «Zerutiar eskaleak» liburutik).

maiatz. 18



LUMAREN KAMIKAZEAK

(made in Japan)

人之所畏，不可不。

Shiki poeta bai, baina Matsuo BASHO (1644-1694) samuraia ezagutuago da Hai-Kai egile bezala

1) *furu ike ya putzu zabar bat*
kawazu tobikomu igel bat airez ureratzen
mizu no oto. eta uraren hotsa.

2) *freskotasun*
horman nere zango zola biluziak
loaldia.

3) *itsas gainean arrats*
abate abots
abulki bain xuri.

4) *batzuetan bedoeik*
ilargia bain miresteaz
pausatzen gaituzte.

Xinpletasun hunkigarri horrek inguruko errealtatea hizkuntzarekin (beraz astraktoarekin) juntatzen du. Hori da Hai-Kaiaren artea...

Atomikoaren garaia Hiroshiman estrenatua izan zen 1945ean. Japoniar literaturak (zineak, kirolek, etabar.) zabaltze mundial bat ukan du ordu hartarik goiti. Azkenean harreman kultural eta ekonomikoek sortaldea sartaldeari lotu dute. Gure atsegingarri...

Orain aipatuko ditugun idazle gehienak Japonesez tradizioan eta Europear kulturari haziak izan dira, hori Tokioko, New Yorkeko edo Londreseko unibertsitateen eraginaz.

五 草

Gure zerrendan lehen Junichiro TANIZAKI izango da : hau 1886an sortua eta 1965ean hila da Tokion. Gaztaroan kanpoko ongi zezagun idatzenez tentatua baldin bazen, zahartzearekin Japoniako balore tradizionalen gorapatze bihurtu zen. Frantsesez itzuliak diren lau elaberri idatzi ditu :

- *Asunen gustua*
- *Zoro zabar baten egunkaria*
- *Lau abizpak*
- *Aitormen lizuna.*

天乃道乃久殆。

Bigarren Yasunari KAWABATA dugu, 1899an Osakan jaioa. Heriotzak (aita, ama, aitatxi, amatxi) moldatzen du hamabost urtetako mutiko gazte bakarti hau. Idazkintzaz ihes egiten du, errealtate dorpe hortarik. Eta noski bere elaberri gehienak heriotzaren inguruan borrobilkatzen dira. 1925ean idazten du bere lehen obra (Nere hamaseigarren urteko egunkari gordea). Askok izkribatzen du, errebistak ere sortzen ditu, zinean aritu da. Langile nekagea. «Roman miniature» delako idatz modua asmatzen du. 1968an Nobel saria ardiesten du, eta 1972an bere buruz beste egiten. Frantsesez aurki daitezkeen testuak :


- *Elur herria*
- *Mendiaren burrunba*
- *Loak bartu ederrak*
- *Kyoto*

Kawabataren liburu batetik bestera bakartasunaren gaia erabiltzen da, heriotzaren, maitasunaren eta erotismoaren usain aberasgarriarekin. Baratzek, Japoniako mendiak, bazterrak eta sasoinak kutunki erakusten ditu («Pays de neige» delakoan adibidez) idatz modua Hai-Kaienari hurbiltzen da : zuhur, garbi, zuzen, errankor. Zion egun batzu hil baino lehen : «*Errez da Budden munduan sartzea, zailago debruen erresumetan... Bere eskearen helburua Edertasuna, Egia eta Ongia duen artixtak baitezpada nabi du debruen mundu hortako atea nonbaitik zilatu ; ageri edo gordean dagon pentsamendu hori beldurraren eta otoitzaren artean zalantzan dago...*».

Hirugarren piztia Yukio MISHIMA dugu. Bere egiazko izena Kimitake Hiraoka zen, eta 1925ean sorturik 1970ean seppuku batean bere buruz beste egin zuen Mishimak Tokioko idazle honek asko izkribatu zuen bizi zelarik oraino : saioak, antzerkiak, elaberriak, nobelak, ibilaldi ipuinak, etab. Publiko arruntarentzat bezainbat (zatizkako ixorioak egunkari handietan) irakurlego «handia» rentzat idazten zuen. Hiru literatur sari ardietsi zituen Japonian. Eta «chef d'oeuvre» bat eman zuen lau tomatan «Emankortasunaren Itsasoa». Ikaragarria ! Irakur daitezkeen beste lan batzu :

- *Urrezko etxea*
- *Bazkariaren ondotik*
- *Maitasun egarri bat*
- *Maskara baten aitormena.*

«Maskara baten aitormena» homosexual baten ipuina kondatzen du. Bere izatearen deskubritzea, izate horren bizitzea «normaltasunaren» maskararen azpitik. Hain erreala den egoera hori arras zuhurki eta zintzko errana da. Batzuetan irakurtzean angustia hilkor bat sortzen da...



Aurkeztuko dugun azken Japoniar idazlea, berritan Europako pantailetan agertu filma batek kaleratu du, nahiz bere herrian oso ezaguna eta preziatua izan. Hau Shichiro FUKAZAWA dugu.


Gazterik utzi zituen eskolak musikaren eta antzerkiaren munduan sartzeko. 1956eko azaroan Narayama-bushiko kantuei buruz saio bat idazten du, eta saio hori ondarrean intensitate handiko elaberri bat bilakatuko du «Narayama» titulupean. Obra gogorra, ankerkeri bortitzarekin egina, ordea humanitate asko badauka bere orrialdeetan. Tanizakik, Ito Seik, Mishimak eta Takedak ongi etorri handia dagoite literaturgileen munduan. Narayamaren ixorio hori ikuspondu diferentekin irakur daiteke : erlijionearen optikatik, sozial arrazoen argiarekin, poesia bat bezala edo leienda baten manerari. Ipuin aberatsa.

Japoniako literaturak Fuji mendi urdinari iduri du beraz. Aitor dezadan nihaurk ez dutala, argazkietan aparte, nere begiz gailur mitiko hori ikusi. Baina senditzen dut : elurra, etxeko hileri irriska eskaintza, Tokioko metroa eta trenbideetako burdinen artean sagu eta garratoi familiak.

Japanese girl.

ahantz hitzez hatz

ITZULPENAK



MAITE BATI.

Zure ondoan egon eta zuri begira dagokeenak
Jainkoek ezagutzen duten zoriona jastatzen du,
zure abotsaren ezitia irets dezakeenak,

zure irriaren magia hunki dezakeenak,
baina nik badakit irri horrek bihotza
urratzen didala.

A! ba ahal dakizu ikusten bazaitut
den segundurik laburrenaz ere
bat batean nire espainetan
bozkarioa hiltzen zaidala indarrrik gabe?

Nire mihia hor dago hautsia bezala,
eta batera haragi barnera
su gorde bat lerratzen zait.
Nire begiek ezer argi ez dakuste,
beharrietan zarata burrunban ari zait,
izerdiz itoa nago
gorputza ikaran dut
belarra baino orlegiago naiz
eta guti falta zait hila senditzeko.

SAPPHO (-612-557)

Nostalgia.

Ohe aurrean ilargi betea dago,
lurrak izotz zuriz jantzia dirudi.
Burua altxatzen dut ilargiari sogiteko,
apaltzen dudanean sor herriari pentsatzen dut.

Mendian.

Eskatzen didate zergatik mendi orlegian bizi naizen.
Irriz, ixiltzen naiz, bihotza bakean.
Loreak erortzen direnean,
ura iragaiten denean
nire mundua ez da gehiago gizonena.

DANTE

SONETO VI.

Nire pentsamen guztiek maitasuna aipatzen didate,
beren artean ordea desberdin asko daude :
batek haren seinoria gutizia arazten dit,
besteak aldiz erokeritzat dauka,
batek esperantzarekin ezta dakart,
besteak ardura negarrez itotzen nau.
Urrikia otoizteko bakarrik juntatzen zaizkit,
baina nire bihotzean dagoen beldurraz ikaritzen dira.

Halatan, ez dakit gehiago zein entzun,
mintzatuko naiz baina ez jakin zer erran,
eta maiteminaren xendretan galdurik nabil.

Bien artean bakea egin nahi badut
nere etsaia den Urriki andrea
deitu behar dut defendi nezan...

SONETO VIII.

Zure ikustera natorrenean, o bozkario eder
nere tormentu guztiak ezeztatzen zaizkit,
eta zure ondoan nagoelarik maitasuna oihuz
entzuten dut : «ihes egik, nahi ez baduk hil !».

Denetan zutabeak hartugo dituenaren
arpegiak bihotzaren kolorea erakusten du,
eta ikara izigarriaren mozkorrean
harriek berek diote : «hil bedi, hil bedi !».

Bekatu dagi orduan, nere arima galdua
ikustean kontsolatu nahi ez nauenak,
heriotz gutizia duen nere begia
berpitz lezakeen, zure irriek hiltzen
didaten urrikiaren aurrean konpazio
apur bat eskaini nahi ez didanak.

DANTE ALIGHIERI (1265-1321)
(«Vita Nova»tik)

HITZAK

Hitzak kiretsak dira,
ezpata bat iduri pasatzen diren lekuan
zauriak degizkitez,
laudakeriak aldiz, harek
errez eta pausagarri
mozten du, baina pozoindatzen,
hitza,
libre dena bakarrik
engaiatzen duen zor bat da.

Eguzkia itsasoko lainoetan itotzen delarik
Gaueko uhain bat munduaren gainean hausten delarik
Begieta eta bihotzetan bixta hiltzen delarik
Zure bidea labirinto batean bezala galtzen delarik
Zuk, ibilkari zabilanak, bilatu eta ulertu nahian
Ez duzu beste argirik hitzen begia baizik...

NEGM
Cheikh IMAM.



Zuk ere asko desio zenuen, baina bortxaz
maitasunaz guztiak plegatzen gaitu,
plegatzen gaitu minik azkarrenak.
Gure arkak ez dira, alta debaldetan
beren lehengo lekura itzultzen.

Habil beraz goiti edo beheiti ! geroko egunak
natura mutuak erabakitzen dituen gau sakraturaino.
Ez ote da Orkusaren konkorenean ere
zuzen bat, nagusi den lege bat ?

Esperintziz badakit. Sekulan, zeruko jainkoek,
ez naute, o munduaren zaintzaleak, gidatu,
iduritzen zait, maixu hilkorrak bezala
zuhurtziaren xendra batuatarik.

Gizonak, diote jainkoek, gauzak oro saia ditzala,
haietaz hazirik guztiei eskerrak bihurturik
bere askatasuna uler dezan, hemen hautsi
eta nahi duenera jo !

HOLDERLIN (1770 - 1843)

N.N.tzako eresikanta.

Zuretzat urrunegi bada, errazu.
Baltikako uhainen gainetik laster egiten ahaliko zinuen,
Danemarkeko zela eta pago zuhaztletan zehar,
Itsasoruntz, eta jadanik, hurbil daukazu
Sasoin hontan xuri dagon Labrador.
Zuk, ugarte bakartiei amesten bait zinuen,
Hiriaren eta autobideko su klisken beldur bazara,
Oihan elkorren bidea har zinezakeen,
Elan eta karibuak pasatzen diren ur hitsen gainetik,
Urreputzu abandonatu sierrasetaraino.
Sakramendo ibaiak gidaturik,
Haritz arrantziez estali mendietara helduko zinen.


Oraino ekalipus oihan bat, eta nere etxean zintake.
Egia, manzanita loretan delarik eta
Udaberri goizetan itsasadarra urdin
Bihotz kontra aintziren arteko etxeari
Eta Lituaniako zerupeen sare hedatuei pentsatzen dudala.
Mainua hartu aintzin zaia kentzen zinuen kabana
Betikotz, kristal huts batean aldatua da.
Harek, berandan iragan gauen ezti iluna,
eta kahaka ttiki bitxiak, eta zalpainen usainak dauzka.
Nola bizi ginen orduan, ez dakit.
Ohidurak, apaindurak, ez garbi, ez gauz,
Azkenari buruz ikaratzen dira.

Gauzak diren bezala amesten ahal ditugu.
Denbora pasatuaren jakintzak, olaintzinean zaldiak gorritu ditu,
Eta plaza gainean, merkatuko zutabe laburrak,
Eta eskalerrak, eta ama Fliegeltauben peluka.
Asko ikasi dugu, badakizu.
Nola kendua izan zaigu, bata batetik,
Ez zitakena, jendeak, herrialdea ?
Usteko ginuen alta bihotza hilen zela,
Teak eta ogiak mahainean irri degigu.
Bakarrik, Sachsenhausenen hauts pobrea pizonaren neurian ez den
Maitasun oso batez maitatu beharko zena, ez maitaturiko damua.

Negu heze berriei eta aleman jabearen odola, hura ez da itzuliko,
Hormetarik kafazkatu duten etxeari usatu zara,
Nik ere, ahal nuena baizik ez dut eraman, hiri eta herri.
Ezin gara, bietan aintzira berean sar,
Urki hostoez moldatu sakon batean ibiliz,
Eguzki lama hertsia hautsiz.
Zure eta nere faltak ? Falta ttikiak.
Zure eta nere segretuak ? Segretu humilak.
Izar bat argi dago, eta urrunean zakur bat zaunkaz,
Ahoa, oihal batez koropilatzen dutenean, eta erhietan kurutze bat ezartzen.
Ez, ez da urruntasunaren gatik
Ez zarela etorri atzo edo iragan gauean.
Urtez urte gutan huntzen ari da, gaindituko gaitu bihar,
Zuk bezala konprenitua dut : ezaxoltasuna.

CZESLAW MILOSZ, 1980eko Nobel literatura saria.

Berkeley, 1974.



AITAMERI,

Zuen haurrak ez dira zuenak
Deiaren seme alabak dira
 bizia berarenak.

Zuengandik datoz, zuetarik ez
Zuekin dauden arren ez dira zuenak.
Maitasuna emaiten ahal diozute
 pentsakerik ez,

Berenak dituztelakotz.

Haien gorputzak zuen ditazke baina ez arimak,
Zuek bisitatzen eta asma ez dezakezuen
Geroaren etxean bait dituzte.

Haiek bezala izaitera saiatzan ahal zarete, baina ez
Haiek bortxa zuek bezala bizitzera !

Bizia ez doa atzera, ez da atzoarekin gelditzen.

Arkak, zuek zarete, eta zuen haurrak
 Zagita biziak iduri zuen bitartez
 Iraitziak dira.

Zuen indarra arkalariaren eskuaz
 Bozkarioarentzat izan dadila !

KAHLIL GIBRAN.

*Muller'en poemari euskarazko jantzia
Mayi Pelotek josi dio.
Beste poementzat Itxaro Borda
izan da dendari.*

E Z K I A

*Iturri ondoan, atearen aurrean
bazen ezki bat.
Haren itzalpean
bainbeste amets goxo
dut egin.*

*Haren azalean
bainbeste maitasun bitz
dut grabatu
Bai zorionean bai grihetan
zerbaitek barenganatzan nau beti.*

*Gaur ere bidez bide
gauaren gauean zehar
aurrera ibili behar dut.
Hangatik ilunean
begiak jadanik
hetsi ditut.*

*Eta baren adarrek
neri deitzeko bezala
firfratzen didate :
«Hator hunara lagun,
sosegua hemen
atxeman dezakek.»*

*Haize hotzak aurpegira
ufaka
Txapela burutik
airaka
Ni ez naiz itzultzen.*

*Orai legu askotara
toki hartarik mundu eta
beti firfiran aditzen dut :
«Atsedena bor atxeman bezake».*

*Wilhelm MULLER'etik.
XIXgn mendekoa*



SCHUBERT'ek Lied hau musikatu zuen.

caussade J-louis

Lehen texto hauek eskaintzen ditut JOSEBari eta haren bidez Euskal Herriko eta Munduko preso politiko guzieri. . .

Denbora bera nigarka ari zen. . .


Ile xut, beltzaran, begi barne dirdir edo ilun: Nahi duk baso bat ?

Gomitatzen nau bere goibeltasunaren besarkatzerat, bere bakartasunaren erresuminduraren eraungitzerat ; Denbora bera nigarka ari zen eta hezurreraino uranpatua zagon, bere gelako ate aintzinean, bere zolan zilo handi batzu baziren eta denak iduriz beltzak lano batetako kedarez bete ; Gose nintzen zerbaitetaz, burua bera nahasia bezala eta gogoetak ez zuzen ; Nere asmakizunak bazoatzen, alditzar bortitz batzuetarat ; «Nere gogo tortura geldi zazue, otoi !»

Nere gorputz osoak lardazki izigarri bat egin zuen eta ekaitzaren erditik ximixta zorrotz baten pare atsegabe zorrotz batek ziragandu ninduen . . .

Jautzian iratzartu nintzen, ganbera ezautgarri gabeko batetan, ohea desegina eta gorputza buluzia, izerditan, harrespil bat bezain pizua ; Amets gaixto bat ote zen, ala hori da bizia ? Leihoen artetik iguzki zirta batek eman zidan erantzuna. . .

Gau guzietarik, argia aterarazten ahal dela ; herstura guzietarik baketze bat. . .



HOBE... SUNTSITZEA

Nere amodioa galdu zaitut, alta maite zintudan ;

nere begiek sortu dituzten nigar kardingek, aurpegi matelak irrikatu eta bihotza ziragandu dizkidate ;

hilabete bat badea, urte bat, ala mende bat ez dugula elgar ikusi ;

Amodiozko gutun samur haiek ez dizkidazu gehiago idazten ;

Telefonan zure boza galdu da ;

Denbora batez, nere jazargoek, gau osoak iratzarrik atxiki ninduten ;

ezin asmatua, ezin egina iduritzen zitzaidan zu gehiago ez ikustea, ez hunkitzea ;

Hosto eihartuen azpian ehortzi nuen nere gorputza eta usteldu zen ;

nere biziak, zure ixiltasunaren eta hutsaren zauri odolestatua zaukan ;

Nere itxaropena eta amodio osoa zutan murgildu zen, ez zenuen kasu eman ;

Bizkitartean, bakardade bortxatu hau bizitzen dut, zure gutziaren errearen erdian ;

Ezé ez zara nere, libro zara, nahi duzunaren maitatzeko libro,

nere sofriarazteko libro, antsi izaiteko eta hiltzeko libro ;

Hiru aste hauetan nere gogoa, etengabe zurekin da ;

Bainan barka nezazu, ez zaitut larderiatu nahi ;

Ixilduko naiz, goaitatuko dut samurki, igurikatuko, beharbada ahanzi nahiz,

bainan ez zintzaket ahanzi ; Hobe litzaidake suntsitzea.

DEBRU KRAPAUTAK (aputxarra)

Gaua urdin, lanotsu eta haize fina, goizeko oren bata da eta jendeak karrketan erdi andarka badoatzi, nik dakita norat ; Ostatu guziek atepak hetsiak dituzte eta etxerat buruz noa. Nere buruan mila amets, nere buru funean mila arrabots, nere gogoan izen bat, Brigitte, behar bada hor aurkituko zindudala bide bazterrean nere bila, bainan ez zaitut ikusi eta bakardadean sartu naiz gaur, nere saizilorat.

Hortzak garbitu, zigarretaren orroitzapen karatsen galtzeko eta begitarte ikuzi, argitasunaren bila, nere gogoko asmoen aurpegitik lahardekatzeko bezala ; Bainan debru krapautak, urak ere ez zituen haizatu eta hor ziren beti azkarrago, nere barnean beti gehiago gudukan : «Zure saretan sarrarazi nahi ukan ninduzun, armiarmak eulia gakatzen duen bezala, bainan nere bihotza askaturik atxiki dut eta nere sentimendua erne ; eulia armiarmaren sarearen aintzinean, furrudunka bere hegal guzietz ari den bezala, airatu naiz bertze ertsakietarat.»


Karrikan azken edanek usaiak gabeko kantu erkiduragoetarik emaiten dituzte. Bakan autoak iragaiten dira, gutaz axolatu gabe, beren ametsak, aments bitxiak, badituztela ere eta haien ondotik dabiltzala. Bi orenak dira.

NEGUA KANTUZ

Negu minean, lanoak zaizkigu elurrez dohakin,
kristalak ilargi betean dirdir ;
Egunaz berriz, iguzkirat zuhaitzak iduri erregin ;
Zelaiak bere dabantal xuria jauntzi du
xori hatz batzu lerroka galtzen dira zuhaitz baten oinetan
etxe ondoan haur batek bildu ditu, elur pilotak, biharko
gudukaren itxaropenean,
auzoko zakur beltzak, bere ileak zuritu ditu elurrarekin
gozatu ondoan,
eskalea eskordiz jana, elurtu zen betiko gauean,
biziak bertze laster bat asmatu du, denboraren purrustadean,
negua kantuz ari da, elur lumak dantzan ari direnean,
elurrak, gizartearen bulbura, elbarri du, negu minean.

LUMA PAREGABEA

DENISEri...



Lanean ari nindian nere ganberan
Luma bat etorri zaatan liburuaren gainera
ez dakiat nundik zetorren
ttipia zian, xumea, bainan pollita,
amodioaren arintasuna,
kalipuaren zaintsudura,
samurtasunaren goxotasuna, zehakortasuna,
behar niala beiratu, betiko atxiki,
joan nintian lot gailu baten bila,
nere gogo eta behakoa hari nitian lotuak,
bainan liburua hestean, airatu zaatan,
eta ni erotua, ukurturik, haren ondotik,
zoko guziak mihatut nintian ;
Bertze luma asko ikusi nitian bainan
hura bezalakorik ez
negarrez hipaka gelditu nintian
haren orrotzapena zauri bat niala.

HARRAPALADAN

Hama zazpi zaldi
gaueko egunean
zoazten lasterka.

Euri tantaz, bata
bestiari lotuta.

Alperrik lurrak nahi zun zutitu,
zaldien nahiak
berriz zutela makurtu.

Bi lepo tartean
zuhaitz bat nun ikusi.

Adurra zuten zuria
itsuaren begiak bezala
adur zulatua, haizearen besoarekin.

Arnasaz edindako lanoetan,
hankak zuten ametzak idazten.

Hotza biluzik, zainetako
odola larrutzen.

Denen gainenan jarrita
ilerikan gabe
hilargi bat bazen.

Ez nun eguzkirik
ikusi,
bildurra ahal zuen ?

A M E T S

Zoroek ekarriko digute
herri berri bat.

Kolore berriarekin,
eta hauen ametsak
izango dira lege.

Huen negarrarekin
gira loreak bezala
zorotazunean haundituko.

Etixerik gabe atea.
erleak izango dira dendari.

ZIGOR

S U A


Aita gizon,
ama hotz.

Alkar maitasuna
laztanez egina.

Hotza erditu zen
zu sortu.

Sua jaio zinen,
zira
lapur,
hiltzaile,
oker,
eta neguak
egin zaitu ederra.

Ezdezu ispilo beharrik,
maite zaitut dantzan
nere eskuetako harritan.



E R R A N

Amodioa ikusten badun
zabaldur hadi,
haran bat bezala
erreka zain.

Haur bat erditzen baldibadun
barrengo korapila laxa
garrasiak eztarria
karrakatu arte.

Bakartasuna agertzen bazaun
gorde biotza,
estali anima,
izotzta baino lehen.

Heriotza asalduko denian
esanaun belarrira
nola dun arpegia.

EUSKARAZ IRAKUR gehiiago...

SUSA



Ramonenea etxea
Virgen del Carmen Z/g
20012 - DONOSTIA
tel 19.34.43.28.33.99
urteko: 700 pztá edo 45 F

PORROT

KontakTuan jartzeko
deitu DONOSTIA n
Felipe Juaristi
52.51.45
Koldo Etxabe
69.01.07

TTU TTUA

TTU TTUA

Joanes Urkijo
Iturribide kalea, 68-6A
48006 BILBO
tel 19.34.49.433.82.96

KORROK



korrok-I

Karrasi Barañain
etorbidea, 52
31008 IRUÑA
tel 19.34.48.27.01.03

EKAINA.

AIKE ONA route d'Arbonne
64240 - BIDARTE
tel (59) 54.97.13
urteko 100f edo 1600 pztá

KANDELA

Manu Lopez
Coronacion, 9-2. esk
01012 - GAZTEIZ

ORIOKO ELIZAN...

Orioko elizan belauniko.
Aspaldiko partez otoitzez.

Zu Jainkoa
bakartasun handienaren jabea
izan zaitez
nere bakartasun jasan ezinezkoaren labea.

Zuk Jainkoa
nonbait baldin bazaudez
entzun itzazu
Orioko eliza ilunean
deiadarkatzen dizkizudan
haserrezko
hitz hautsi
hauek.

Zu Jainkoa
ardura madarikatu dut
zure izena,
baina gaur
Orioko elizan
zure urruntasun hormatuaren
bharra
hezur muinetan
nabaditzen dut.

Eh Jainkoa !
ez dizut barkamendurik
eskatuko,
ez naiz damu gorritan
sartuko,
dakidalako ni bezalako herbailei
ez dela
den mendrenik
barkatzen.

Orioko elizan
nere bizi modua
konsideratzen dut
«maiteak zergatik hutsik utzi
ninduen ez dut oraindak ulertzen»

eta lepoko zainak
gogortzen zaizkit
negar hits gutizia
erraietan ito dakidan.

IN GOD WE TRUST

gauzak gaizki doaz :
goiz honetan
beherakada
hurbila
sumatuz nire azken
dolar orlegiak saldu ditut.
«in god we don't trust».

gauzak gaizki doaz :
goiz honetan ere
kazeta
irakurtzerakoan
jakin dut mikel laboa
gaixorik zela.
«hegoak ez bagenizkio ebaki»

gauzak gaizki doaz :
goiz honetan berriz
karrikara
jaustean
konturatu naiz maitasun
historio hori etzela nerea.
«ederki engainatu naiz !»

gauzak gaizki doaz :
goiz honetan bertan
euripean
ibiltzean
erabaki dut ongi sentitzen
naizen lurraldeetarik
ez nuela gehiago ebaslea
bezala ihes egingo.
«stay, stay, stay everywhere !»

gauzak gaizki doaz :
banan bana kolpe guziei ihardesteko
gutizia dut, baina ahulegi eta bakarregi
naiz.
gaizki doaz gauzak.
Zinez.

Itxaro BORDA

NOLAZ
DARIZU NOR
NAIZEN!

HUGO
FRAT




PORTO MALTESE

ITXARO BORDA

THIS IS THE END MAITEA !

Izturitzeko harpe hotzetan gizonak konputerrekin
Espace invaders joko zailean ari ziren pantailetan,
Tolosan aldiz gazte guziak dantzari «gure txokoan»,
Poliziak hor Baionako gau beltzen zubiak blokatzen,
Erradak maite non dugun preso bizi nahien indarra ?

Beatriz a latz ederrak atzo baitzukeen ilusitu
Zugizaharren puntaren puntan, esku artean burua
Dante gaizoa ikusi nuen negarrez maitemindurik,
Leonardo jin zitzaion laster lau zaurien epeltzera
Eta oheko laguntzat Mona Lisa bera eskaintzera.



Prince txikia kitarrarekin euri brioretaren zain
Maikel Jacksonek herrena egin nahi zuen txalapartan,
Monteverdiren tronpetak entzun ziren itsaso gainean,
Levingstone zoan pigmeen bila Afrikaren errailetan,
Portugaleko marinel batek hamar beltz bildu zituen.

Ai Galileo zoritxartsua zerk ekarri hau mundura ?
Lurra borrobil dela oraindik nork luke gaur sinetsiko ?
Hobeko zuen Pisako dorre haren kaskoan jarririk
Totocalcion arizan balitz, Platiniren goresteko
Edo Paolo Rossiren baloi suerteduna miresteko...

Jesus Krixtoa zerutik jautsi zen balentriaz orduan
Belauna hautsi zuen lurrean, eta mainguka bazoan,
Ewingdarrekin konpondurikan Dalassen bizi izan zen,
Komisariak beterik ziren travelo eta putekin
Edo karrikan uzkur zagotzin manifestatzaleekin...


Nepalen gaindi Marco Poloren karabana zuhur zoan,
Pelerinoak urrats beldurtiz Izuran gelditzen ziren,
Parisen atzo goseti orok iraultza bat egin zuten,
Mozkun tristeki Trotski kanpora igorria gertatu zen
Eta John Fordek Santa Graziko elizan filma bat sortu...

Kristobal Colomb karabelekin joan zen Indietara,
Kurutzarekin Karaibetan bonba zartarazi zuen,
Atomikaren usain gogorak tiraturik behar bada
Martziako frango etorri ziren gure lurraldeetara
Eta haurtxoak lau begiekin jaio ziren kliniketan...

Blues zaharrean errepikatzen zituela negar otsak
Beltza aditu zuten oihuka Orleans Berri hirian,
Marylin ere president baten beso artean urtu zen,
Hamalauko gerlariari zango bat josi zioten
Plastikazkoa, burdinezkoa, mikroprozezurrekilan...

David handia marmol zurian Michelangelen etxean
Bere gorputza berotu nahiz harri ezpalean erdian
Ezkaratetik barrukuraino lasterka bazoan xotil,
Poeta batek beste batekin xardinak jateko asmoz
Urtarrilako hotzetan ehun kilometra egin autoz !

Elur dagien gau bakartien minean senditzen zuen
Ohe handia erretzeko hor gizonen baten beharra ;
Ene maitia ardura nagok zero hutsari begira
Nik ere segur nabaitzen diat eskapatzeko desira
Ilargiaren urdintasunak finkatzen duen hegira !



1985eko urtarrilan,

XX mendeko poeta klandestinoak.

Josebarri,

MAYI PELOT

Εὐρομεν ἐν βήσσησι τετυγμένα δώματα καλά
ξεστοῖσι λαέσσι, περισκέπτῳ ἐνὶ χώρῳ.
Ἐνθα δὲ τις μέγαν ἱστὸν ἐποικισμένην λίγ' αἶψαν
ἦ θεὸς ἦε γυνή...
Od. X. 250 099

BEGI GORRIA

Bat, bi, xuri beltz
behi eta bele
bahean bihia ote ?
Basolo bihi bai.

Baserri beltzean
basusak bilduz
ibiltzen nauzu
ni Begi Gorria
itsas bazterrean
bularrak enbatan
nabilena

Etxola beltzean
basagaitzak babestuz
bizi nauzu
ni Begi Gorria

Bat, bi, bilbe berdean
Behin'aren edo
Beti'ko
bihiak

Hemengo begiek
biraua botatzen dautate
arratsetan txistuka
burdinaren oihartzun hotza
urpeko baia bizia
apo begi gorri

baitut laguna

Zuen begietako bilbe beltzean
zueri so nauzue ni
Bi berinezko Ibaietako alaba
ni Begi gorria.

bi ibai
belarraren bilbe berde hori
biribilka
basabiperrez ehaintzen ari



bizi bortitzari bai
ibai bi
erbiari bilo beltzarana
ebatsiz
bilbea biltzen ari

nere besoetako bilbean
bi ibai Berdea ta Beltza
betidanik
burrukan
behin batera bultzatzen ari

Nere bihotzeko bilbearen bitartez
betidanik
taupada bakotxean
bi ibai

batu batu


And I have sworn to see him no more,
see him no more ?

Behin
bide bakarra utziz bazterrera joz
ate begi nabarduna bultzatu ta
nere baratzeko basaka bixi belar biziak
beldurrik gabe jastatu zituen
eta baso bakunetik edan zuen
begien artean bildutako
ur bizidun bitxi perdea,
izar-ibaiko semeak

Behin batean
laparretako apoak abestu zuen
gure begietan burruka
haren bularraren barnean
bake ebakia bilatu nuen.
Beso bizkor bortitzez
haren bizkar beroa belar malguak
besarkatuz
branak hizepean bezainbat itzuliz
berro bipil barreiatuetan
geure buruen bila ixkuli eta

gero,
bera laparretan gairi abiatu...
Haren bularraren barnean
bakearen kabia ebakirik
bihotzean gairi bultzatuko banu...
Bainan beti
barkamendu gabeko bakean
murgildu ninduzuen
ni Begi Gorria

Bilbe bele beltz
bi, bat
buru bilo beltz
baso bitxiak
bizi bortitzari bai
behin bai behin
bilbeko hariaren
berinezko baiari baietz
bizia har ibai



IRUTEN ARI NUZU
ni Begi Gorria
BURKILA GERRIAN
ARDURA DUDALARIK
BURDINA BEGIAN
biziari bai

Handwritten signature

AMARAUNA 2 eta 3

K I P K H

ARMIAMO BATEN ALDE

Itxaro-ri

Amaraunez amentsean egitean, armiamo eder batez askotan oroitzen naiz : Odüzeian aipatzen den Kirke jainkosaz, sorgin famatuaz, kantari-aztia kizkurraz, urtebete bateko Ulixezen ohaideaz.

Kirke uharte batean betiko gazte eta ederra bizi da. Bere «harri leunduzko» jauregi-zelata ibar goxo baten erdian, agirian ezarri du. Eta barnean dago, ehundegi handi baten ondoan, jarririk, emakume lanetan baina gizonen bereganatzeko ozenki kantuz. Armiamo kantaria, amaraunaren erdian zai.

Odüzeiako beste ehailea, Penelope bera, Ulixezen emazte leiala dugu ! Ironia Grezian sortu zela ezin ahanztz...

Izigarri gaixtoa baita gure Kirke. Gizonak eradan eta bere edariez aldatzen ditu, gizonetarik otsoak, lehoiak, eginez, bai eta sofrieraziz, bakotzak gizakumearen gogoa aberearen gorputzean beti baitu. Kirkerengatik Ulixezen lagunak urdeak bilakatu dira, gaixoak. (NDLC : berriz ere arrazakeria urdeei buruz !). Baina Ulixezek, lore sorgin bati esker, ez da urdea bilakatu, Kirke menperatu du eta ez du sorginaren ohera igan nahi, Kirkek gizontasuna ez diola kenduko zin egin baino lehen.

Geroztik Kirke, kritiken fantasmaeri esker, emagalduean, hobeki esan emagaltzailearen sinboloa bilakatu da, bere edertasunaz gizonak engainatuz haietaz zer nahi egiten duena. (Ikus Buzzatiren ipua). Emazte sorgin gaixtoa.

Kirkeren alde jarri ? Zergatik ez ?

Ulixezek galdatu eta, egin duen miña kentzen du, hots, haren lagunak berriz gizontzen ditu. Orduan, haiek elkarren besoetan nigarrez ikusiz urrikaldu zaio. Ulixezen ohaidea bai eta ere laguna bilakutzen da, berak Ulixez lagundu nahi baitu. Atseginaren truke eskerduna ? Gizakumeen oinazeen berri ukan eta jainkosaren bihotz idortasuna edo lasaitasun krudela galdu eta ? Dena den, gizakumeen legeri obeditzen die, Ulixez eta haren laguneri, mariñel ezindu hoieri janaria, edaria, oheak, jantzi berriak eskainiz, haiek pizkortu arte artatuz.

Ulixezen sentimendueri buruz olerkariak fitxik ez digu esan, urte baten buruan lagunak abiatzea galdatu diotela salbu. Halere Kirkek ez dio Kalipzorena egin, ez du jainkotu nahi, ez eta senartzat nahi ; ihardoki gabe joaitera utziko du.

Kirkek gauza gorde aintz aintzinetik bazekien : hala nola, Ulixez delako bat behin batean etorriko zaiola. Harek itsasoan jasan zituen hondatze eta miñak ere jakin zituen.

Kirkek aintzinetik badaki Ulixezek itsasoan arrisku aintz atxemanen dituela. Itsas-neskak, Karybdis eta Skylle ezagutzen ditu. Ulixezi dena ikasten dio, dudarik gabe hura zaindu nahiz.

Gure ehaile-sorginak korapilo berezi baten teknika ikasten dio, korapiloak mariñelen eta sorginen lanak baitira. Eta aholku gogor baina on bat emanez joaitera utziko du : Ulixezek ifernuetara, Tiresias zenarengana jautsi behar duela. Kirkek ez daki, beraz, etorkizun guzia. Armiamo kantari ederra ere ANAΓKHren, Beharraren amaraunean preso...

Bere ehundegiaren ondoan, geroa, nahi ta ez gertatzekoa, kantatzen ote du jainkosa-azti ederraren abots ozenak ?

Lucien' i

IRUTEN

Aintzin Denborako Grekoek KERA BELTZAK (Sunts-tzaileak) deitzen zituzten. Hiru atso dira, armiamoen gisan ifernu zolan betiko irauten eta iruten. KLOTOS-ek kilua eskuan du, LAKHESIS-ek (Suerteak) haria ardatza bakotxean ezartzen du. Haria, gizakume bakotxaren bizia da. ATROPOS-en (Ezinbestearen) haixturrek ebakitzen hijitzen baitira gizakumeak. Beraz bakotzak bere zatia eta bere ardatza baditu, Kerek hautatutako gertakariez betea.

EHUNTZEN

Viking-ek NORN-ak deitzen dituzte. Ipar Europako Kera-ordainak dira. Desberdinak haatik. Hiru neska eder haiek ez dute lurpean iruten, zeruan, mundua zurkaitzen duen lizarrenpean, URD iturri garbiaren ondoan baizik. Atzo, Orai eta Bihar kantuz ehuntzen dituzte. Urd iturriko urak zortea ikasten dielako haiek deus ez dute erabakitzen, ez eta ebakitzen, haria etengabea baita, ez baitago norberaren zortetik. Gizakume-Jaungoikoen zortea orokorra da beraz... itzulgarria ? Baina geldi, beste amentsa daiteke hori, hindutarren SAMSARA da. Zortearen amarauna, oihala da ; gertakari-iek izaki-gizakien xedeak irazkia eta bilbea osatzen.

REMAKE

«Spinne, Schwester, und Singe !»

«Ehun eta kanta, ahizpa !»

Antzokian, hiru atso erdi burusoil, Breughel-en itsuak bezainbat kordoka, urrezko soka bat elkhi nahiz. Zortearen haria korapilo mordo bat bilakatu baita. Wagner-en «Jaungoikoen Ilunabarra». Nornek gertakarien ikasteko irun edo ehundu, eta kantatu behar dute. Kantatzeko, soka lotu, tinkatu eta adastu behar dute. Behin eta berriz, eta nekez, soka arrokari edo izei bati lotzen diote, ezin baitute mundu zabala zurkaitzen duen lizarrenpean ehundu. WOTAN Jaungoikoak bere harma egiteko lizarri adar bat kendu diolako. Hil egin da lizarra, iturria idortu. Orduetik Nornek beti kantatzen dute, baina ezin dute gauza argi eta garbirik esan.

Lehen Norna, kosmogoniaz mintzo, bigarrena, gertatu zenaz, baina beren lana ahantzi zaiela iduri, bakotzak besteeri zer gertatu edo zer gertatuko den galdegiten die, Spinne, Schwester, und Singe, zortea, soka, nahasten ari...

Hirugarren Nornak geroa aipatzen duenean, ez digu suspenserik emaiten : jaungoikoak beren jauregian - WAL-HALL-en - hilen direla, jauregia erreko dela...

Jaungoikoen ala munduaren azkena ?

Orainaz, gizakumez, hitzik ere ez. Amarauna desegiten ari da, gertakari maltzur batek hortzikatua. Eta zortearen soka batbatean hautsi da ! Zergatik ? ALBERIX iputxak Rheineko urrea ebatsi eta urre hartaz zorigaitzezko eta gorrotozko eratzun bat - boterea - moldatu zuelako.


Hari-amarauna hautsi eta lurpera ihes egiten dute hiru atso itsuek. Zortea ehuntzekoa utziz.

Soka hautsiko korapiloen erdian ote datza gizakumeen askatasuna ?

«Spinne und Singe ... ehun eta kanta, ahizpa...
ba al dakin zer gertatuko den ?»

J. J. J.

JANDONABAKIRako BIDEA...



«Egia horiek kontsidera ditzagun psikologo batek egin behar duen bezala. Huna gizonaren izpiritu, aintzizogorik gabe, zikinik gabe, ez usteldua, birjina batek itxuratua, eta aitzaki-izpiritu horrek gizonaren Jainkoaren beraren sortzea erdi dezake»

(Karl Gustav Jung)

Haurreri, lokarrarazteko ixtorioak kondatzen nezkeien, artetik burua preakatuz eta preakatuz. Kanpoan xakurra dai-dai erhausiz ari zen argi-zariari, eta izotzak urdin-xuhail egiten zuen gure naba. Negua sartzen ari zen ixil-ixila. «Santsun behin igorri zuen nausiak oihanerat egur egiterat. Astoekin jua zen gero egurrak astotan ekartzeko etxerat. Astoak estekatu zituen bedera zuhamuri, sua piztu, hotz baitzen izigarri. Ondoan bazen erreka turrustan zohana, eta hur-bazterretan karroin gandak zintzilik. Aizkoraz, Santsun haratxago jua nik, zuhamu aurtikitzen hasi zen. Zinpi zanpa, zinpi-zanpa... eta krrrask ! zuhamua lurrerat. Eta Santsun, izigarri azkarra baitzen, bere kuona estekaturik aihenbilhur batez, hasi zen zanpa zanpa egur egiten. Gariak eta egur arrailduak metatuz, abarrak berhex haxekatuz. Egurditan heldu da ba astoetarat eta surat. Zer ikusten du ?? otsoak ! Otsoek astoak janak zazkoten ! janak, pildak ezik. «Sarr balakio ! hauk komedia !

— Bada, zion otso batek, negua duk eta, elurra, eta gose gintian. Gu ere Jainkoak eginak gaituk eta...

— Zer bada ? Jainkoak eginak bai, nahi diat bainan egurrak ? nork eremanean dauzkit eni egurrak ? Astoak asto bainan jendeak jende dituk eta etxean hotzak hilen ditik jendeak.

— Nahi baduk lagunduko haigu Santsun.

— Bai beharko, nahi edo ez !»

Horrela xarduki zuen Santsunek otsoekin, eta pildatu zituen... egurrak gainean kargatu eta etxerat horrela ekarri. Herri guzia berriz ere Santsunek harriturik ezarri zuen. Pentsa ! otsoak pildatu eta egurrez kargaturik etxerat...»

Haurrak xoraturik zauden nahiz eta erdi-lotan begiak hetsirik irriz ari ziren... eguna ala gaua zenez exakin, berhala beren amentsek jarraikiz kondaira. «Eta gero... Eta gero ? Eguberri ! Aitatxi-bizar-zuri !!! Zer ekarriko othe du ?»

Uzten nituen lo egitrat. Galeriatik egoiten oraino apur bat lparlatzeko mendieri begira. Landibarreko ibarra mantelinez jauntzirik, ilargi-pean. Gauak zerua eta lurra juntatzen zituen eta ahapetik nabari zitzaizkidan musika baten notak. «Jung-en arkeo-arima...» egin nuen neure baitan. Azkonbegi aldetik xakur bat hurubiaka ari zen Urtzateietako bortueri... «lehengo otsoak ; min othe dabilz heien arimak ?»

Negua bazohan bere gau luzeekin. Eguberri ere iragan zen. Oihanak pentsaketa zauden urrunean, eta igande iruzkitsu batez Aitatxiren ikusterat jua behar ginduela erabaki ginduen familian. Argia arrosa-kolore zen Irisarriko bidea. Garazin hegoa. Etxeak irriz eta nexkatxen biloak hegoak airatzen zituen lthurranburuko pottoka basen kumak iduri. Garaziko pezoifnetarik jali eta agertzen da Erruzate mendia, han urrun, beste mendiak baino gorago. Ene Futsu-Yama ! Elurrak dirdiran iruzkirat.

«Ikusten duzue han mendi xuri hura ? Erruzate da. Aitatxi-bizar-zuri handik jiten da...»

Haurrak kantuz eskuak joz. Mentstuak ziren.

«Lehenago ni astoan jiten nintzan bide huntarik etxerat. Erruzate ikustearekila nigarra jiten zitzautan, bera...»

Eihalarren iragan ginen. Haur batzu pilotan plazan. Gero Har-arteketako potxa-gainetan ahuntzak, behean erroitza izigarriak. Haurrak ixilik orai. Norat gohaz ? Denetan oihanak eta harrokak, mendi pataitzak. Baina huna berriz etxeak, eta krixto bat besoak zabalik bide kurutze batean. Haurrak pilotako plazan.

«Hemen dagoia Aitatxi ?

— Ez ez, gohorago, Erruzate-aldean»

Aintzina bagindohatzin. Erreka Ondoz-ondo puska atean, eta gero goiti, goiti-goiti, autoa goiti ta goiti oihanpez, goiti-goiti-goiti... oh ! zein goiti ! Gißlerat haurreri so-egin neien, ixilik zauden, bainan begiak argirik. Zer othe zuten gogoan ?

«Oh ! etxe bat !

— Bai, etxe bat. Sausia da hori.

— Aitatxi hor dago edo ?

— Eeez ! haratago

— Nun ?

— Erruzaten !

— Erruzaten ?

— Bai, zeru-mendian... Hara, haaara, aantxua gira, hortxetako gerenda hori iragan eta berhala. Hori da Orrhemaldako hegia. Hor haize-liliak jiten dira elhorrien pean harri-xuriaren artean.

— Oh ! zer dira haize-liliak ?

— Berhala ikusiko duzue.»

Oraino ere goitiago jua eta gelditu ginen delako Orrhemaldako gerendan. Han zauden bide-hegitik goitiko mal-

e.etxamendi

maiatz. 35

karran : haize-liliak ! ainitzak xuriak, bakar batzu urdin-gor-raxtak, mertxika liliak bezala, harrien artean, elorritzeen azpian, bahar eta otsalaharren artean. Hegoa fal-fal zabilan han gaindi xahoak eta iratze eiharrak

– Zendako deitzen dira «haize-liliak» ?

– Hemen sortzen da hegoa.

– Hegoa hemen sortzen ?

– Bai, hemen sortzen da hegoa gauaz. Mendi hotan sortzen da hegoa jendeak lo daudelarik, amentsetan ari direlarik, hegoa hasten da ahapetik kantuz eta elurak hurtzen ditu, eta mendier beheara kilikatuz belarrak eta laharrak jeusten da hegoa. Eta Xazetik hunarat lurpean lokarturik zauden liliak, orai iratzartzen dira... lurretik jalitzen dira hegoaren kantuak amentsetarik iratzar-arazirik. Hortakotz dira lili hauk «haize-liliak».

– Oh ! oh !»

Eta haurrak haize-lili biltzen.

– Kokinak dira ! batzuk oraino begiak hetsirik daukate

– Bai, ez dira oro batean iratzartzen.

– Oh, soizu ! hunek iduri du kuxkutuna ! begiak hetsirik dauzka Labriren kuxkutunek bezala.

– Bai, esnea edanen duenean ainitz, orduan begiak zabaliko ditu. Utz-axu haunditzerat, ttipixe da biltzeko. Epa, Aitatziren etxerat juan behar gira.

– Oh ! ba, ba. Guazen, guazen !»

Atherat etorri zen Aitatzari boneta buruan irriz.

«Soik, soik, ze ustegabekoa !

– Aitatzari, Aitatzari, Aitatzari !

– Nola xira Aita ?

– Untsa nuxu ba ni, ta ziek ? Oh ! ze plazerra ! jin zizte ?

– Ba ba Aitatzari jin gira zure ikusterat

– Oh ! nola haunditiak ziztzen ! oh ! Kattalin xutik abiatia... pottolo !

– Erruzaten egoiten zira Aitatzari ?

– Erruzate gora da, gohorago.

– Aitatzari ! aitatzari !»

Eta ogi-ta-gasna athera zuen, arnoa, jelera haurrendako. Hantxet denak atsalsakari egiten. Sua zirt-zart ari zen. Sukaldeko leihotik Indartaldeko potxak gibleletik iruzkiak zeruan mozten zituela ageri ziren. Bihotza hanbat gauzez inharrosirik nauken ez bainion solas bat funtsez jarraik... Alta elhe ta elhe ari ginen, denak batean mintzo, arpegiak hegozeruz jauntzirik. Juanes, ttipi ttipifhoa zen... ixila. Aitatziren ondoan zagon berari begira. Eta Aita gurekin elhaka. Juanes han zagon berari begira, begi beltzak eta ukondotik hunki zuen «harren hola Aitatzari zeruan egoiten hiz hi ?» Aita gurekin solasean... eskuaz burua perekatu zakon Juanesi «ba, ba pottolo.

– Eta kontent hiza zeruan Aitatzari ?

– Ba, ba pottolo...»

Eta Juanes han zagon berari begira behatza ahoan... artetan kentzen zuen ahotik «harren Aitatzari hi zeruan egoiten hiz hola ?» Begiek argitzen zakoten izarrek bezala, so, so Aitatzari.

Urte luzeak zoin diren laburrak ! juan direlarik... Zortzi ziren, hemezortzi hark eta azken biek bi urte, aita ta ama, eta amatxi. Hameka etxean. Heizar ondo zaharraren itzalean zuten egongia. Hark oraino bizarra beratx zuen mateletan, doi-doi esperantxan... Gerlarat johaiteko manua... Etzen ez alta Khomeiny Frantzian lehendakari, bainan zortzi txitxetan lehena ezarri zuten soldadoz jauntzirik eta jandarmak hor gaindi zabiltzan... Orbaizeta eta Auritze aldean ere familia baitzuten gure etxekoek. Juan zen harat, Pariseko alderat, Alemaniako alderat, bere hemezortzi urtetako lagunekilan. Domingok xahakua berekilan omen zuen. Herrikia, orhoitzeko. Baionan xahakuaren berriz betetzen ari zirelarik karkallaka, jandarmak jin zitzezkeien pixtolak eskuan... Treñak iphar-alderat ereman zituen ziuntan.

Kanolaren orroa ! Mutikoak herremelka lohian ikasten... gerlan ikasten. Zer mintzaira ! nolako arpegi murriztak ! Denak kexu, hitzen erdiak ez ulertzen, herioa, gorputzak...

Larrazkena etorri zen, Garazitik telegrama :

«Ama arrunt gaizki duk, haugi»

Gau bat eta egun bat treñan.

«Atseko treñatik landa, Donianetik Eihalarretat emazte bat bidean... Erruzaterako naban...

– Oh ! xu permisionez !

– Ba, ba

– Etxitut ezautzen, Ezteintzitarra xirare seurrenik ?

– Ba, ba hala nuxu.

– Soixu ! Atzo ezteintzuin izigarria ba'uxu gertatuik,

– Ze ?

– Baa, emazte bat hil izan duxu, zortzi haurren ama...»

«Zanguak enitioxun higi lekian gaifian, ezin ibil, ezin hurratsik in...»

Nolezbait aintzina jin zen etxe alderat. Bideak dira ! «Etxapareko gaztaña-petan fitsik ez ikusten ilunain ilunez. Arbolen kaskuer solten nlexun bidian atzemaiteko. Eskolaik hunat zangoz xendra haztakatuz, batzutan nauka*. Etxeatu-ta borta jo nixin : Aita lehorat : «hi hiza Juanes ?

— ba ba Aita.
— heldu nuk
Borta ideki-ta Aitak potta eman ziaxun ta samatseat
juan zuxun nigarren gordetseat... ezpeitzakien banakieia».

Gero haurrideak hazi.
Gero lehen haurra galdu bi urtetan.
Gero zazpi hurrekin gelditu alargun.
Gero bera gelditu etxiaren zain. Bakarrik.
Begiak hetsi behar zituen gauean, bere esku konkor
haundia perekatzen nakola, erran nakon : «zonbait tailu
gider eta aitzur gider erailirik esku hotan
— Nola ? (doi-doia mintzo zen, nekez)
— Zonbait zonbait tresna-gider erailirik esku hotan
—
— Zee ?
— hortako inak ginela...»
Othoitzetan gurekin. Arrebak beste aldetik, eskua atxi-
kitzen zakon ere.
Amentsetan sartu zen. Batzutan irriño bat egiten zuen
begiak hetsirik eta zerbait erraiten ezpañez.
Gaua bazohan ezti-etziki. Amentska.
Zerbait gorago erran zuen. Ezin adi
— Zee ?
—
— Nola Aita ?
— Athera beha'utela kanpoat... eun guzia arditeian
eon gabe (.....)
— Zee ?
— denbora huna'uxu, kanpoat atheatzen ahal tuziela
eun... elurra gesaldia'uxu....»
Gero erran zuen : «Amaa !»
Ta.

Lur saindua ! iraultzen hindugularik harekin ! Behien eta
lur irauli berriaren usaina ! Aitaren mintzoa. Hungarriaren
goha² beroa... goldearen marrakak harrizkoletan behien
xintxak, amaren ahotsa sukaldeko leihotik. Mendiak, men-
diak, eta oihanak urdin urdin han urrun... Gure zeru-men-
dia !

Ospitalean. Hila ? bizi ? hiltzen ari ? Ama han ondoan
alegia trikotatzen. Aita jin zen, beranta. «Alemanek sekula-
ko ixtoriak in diauzkiutxie. Ez nahi utzi pasatseat...

Nola xira Xainker ? sendatuko xira ba. Baakixu akerra ?
Erruzatetik ekarri akerra ?

—Ba ba ! arditeiean zena, orger estekatuik !

— Baa ! hil dixiu, mahahahraa in dixi marraka hiltzian.
Azkarra zuxun biziki ! Beharrik Sause han baitzen atxiki-
tzeko ! «Ba Sausek atxikiko ba akerra !» eta irrintzina in
dixi Sausek, baakixi nola iten dien » eta Aitak irrintzina
egin zuen Sausek bezala.

Ospitaleko leihotik Alemanak hautemaiten ziren iragai-
ten karrikan : brau, brau ! Heñli-heilo-haila ! Haili-heilo-
haila ! brau, brau, brau, eta xirulak atabalekin.

Ama ikusi nuen bizkarraz ene oheari jartzen eta leiho-
rat buruz arpegia. Banakien nigarrez ari zela. Aitak apal-
apala zerbait erraiten zakon. Alemanen soinua bazohan
Madalenako bidean harat...

Bigarren gerla. Bere anaia gazteena Alemanian zen preso.
Izaba Marisan etorri zen aita juan-eta. Pirripitan hainbat
hozturik, eskuak ene ganbarako berogailuan berotzean
nigarrez ari izan zen minez. Gero Amarekin elhaka. Sen-
harra Alemanian zuen preso eta berriz ere nigarrez ari
zen. Amak beharritat zerbait erraiten zakon. Biak ziren
hain gazte ta ederrak !

«Atorra beltza ?» hori zonbat aldiz entzun dakotan hari ! Puxka bat sendatu nintzalarik, ospitaletik ez urrun, beste izeba baten etxean nindagon. Ostalera zen hau. Harat etortzen ziren saldaren jaterat eta baso-arno banaren edaterat ondoko segategi bateko langileak. Ni supazter xokoan ninduten ezarri karrusa ttipi batean. Ba nintzanez ere ohartu gabe handik beha nindagokon han gaindi zabilan munduari. Sartzen ziren gizonak, salda jaten, baso bat arno dank ! edaten, eta bazohatzen berriz lanerat, esku gibelaz xahutuz ezpainak. Izerdi ziren ardurenean, sega zahiz begi-ondoak eta boneta beterik, beltzak. Atorrek bustiak, nahiz kanpoan negua izan.

Bat etorri zen bakarrik. Izeba Mari Grazianak salda eman zakon. Jaten ari zen ixilik. Ni azazkala hortzetan xamindei-xokotik :

«Ze gizon beltza !
- Ni ? baia beltza ?
- Atorra beltza ...»

Aitaren adixkidea zen eta irri onik egin zuten.

Geroago, adinean ni ere jua nintzalarik, abertzale bidetan sartu eta munduari ditxidoka hasi, aita xahartuak maiz erranik :

«Nihunee etxaude... atorra beltza ?»

Gaur naiz ohartzen zer zautan nahi erran... Johana da.

Hegoa ... izarrak dir-diraka ari ziren. Ilargiak gure mendi mundua zilharretan zaukan. Zirritu ta Arhantzaldeko hegiek urrezko koronak. Zerua barna ta arin han zagon barna zeruan urrun. Izarrak... Bide xuhail bat bazohan zeruan Paltzetatik Oriun-Zilho alderat. Aldean «Xita koroka» : izar ttipiezko lili bat.

«Behin mutiko batek behar etzen zerbait inik, gauza beltz bat, Jandonabakirat juaiteko xedea hartu zixin, bekatia ren barkamendia ukaiteko. Han urtxo bat ba'uxu, Jandonabakin. Kofesatu eta urtxoari ofia eman behar ziaxoxu : jaten balinbadu erran nahi'ixi bekatia barkatia dela, ez balinbadu jaten... Berriz eta berriz koosatu zuxun gisala mutikua. Noizbait koosarrak erran ziaxoxun omen : «bekatu horren barkamendia ukaiteko beha'uk berriz hire etxetik hunarat beila bat in kotxu bat esne eskian (artzaiña baitzen)». Erran bezala in omen zixin mutikuak. Bana kotxu esnia pizia baitzen talastatzen zixin bidian, eta esnia izurtzen tilistaka. Horra zendako den izar-bide hori gioztik esne-kolore.»

Aita ezindurik gelditu zen urtean, sort-etxian zauden etxe-zaiñen familian malur harrigarria gertatu zen : beren aita, oihanetako aizkolaria, ixtripuz hil zen bere egur kargarekilan zohalarik bidean kamionez. Egur-metaren pean leherturik hil zen. Oihanetako gizona izana zen bethidanik, azkenean zuhamuek berenganatu zuten. Zuhamuek beren saria bethi kentzen omen dute azkenean... urak bezala. Iratin hasia oihanean zazpi urtetan.

Gero, gure aitak begiak hetsi zituen.

Negu hartan hegoa zen bethi gure etxalde inguruetan, herri-beherean aldiz bethi izotz. Etxe-zaiñ, ama-seme batzu gelditu ziren. Gau ilargi-bete batez semea, jeikirik ohetik, hasi zen zuhamu aurtikitzen gure oihanetan... aurtiki zituen etxe garaiko bost gaztañatze haundi gauzez-gau. Basa-Sagharreko auzoetan argiak piztu ziren. Euxebio aintzina ari zen motor-segaz zuhamu aurtikitzen : Olhaberrin zazpi haritz-ondo haundi bota zituen ! Gero Larrezokon hasi zen : haritz ederrena aurtiki zuen... bainan gizon batzu haratu ziren, eta ereman zuten Euxebio estekirik autoan. Bi egunen buruan bakarrik nuen jakin zera.

Neure Garaziko sortetxetik berri horiek jakitean nahiko desmasietan nituen neure familia ta etxea. Gure lau seme-alabak etxetik kanpoan, andrea ta biak ginen etxean. Haizegalerna batek urratu zauzkun berotokiak eta oihanean hautsi haritz-haundien buharrak. Lurra samurtua zen...

Juan nintzan bai halere aitaren etxerat. Auzoan utzia zuten gakoa. Gaua zen harat goiti heldu nintzaneko, eta han hegoa zen. Auzoan supazterean jendeak. Arnoa edan ginduen. Xakurrak argizariari hurubiaka ari ziren kanpoan. Hegoak sukaldeko leihoak ar-arazten zituen xiritan kantuz, eta khe buhakoak noiztenka igortzen sukalderat xamindeitik. Zuzulian jarririk amatxi, suak argituz arpegia :

«ba, gaizo Emilio, oihanak ereman du. Oihanak emanak oihanak iruaiten ditu. Bere denboran zuhamu botatzen aritu zen, zuhamuek azkenean lehertu dute. Bethiko erranda : arta'mak zuhamuekin ! Heiñean ago ! Euxebiok burua galdu du. Bada, lehenagotik are tira-ahala bazuen gero ! Bainan aldi huntan arrunt jua da burutik : mendekatu nahi ukan du zuhamueri, denak bota nahiko zituzkeen... Gixaxoa ! Arta'mazu gero ! ez da oihana desafiatu behar.»

Etxeratekoan gogoetan nindagon : «Amañi Bidaurretak zer othe du hori ? Ala... zerbait othe daki nik ez dakidanik ? Oihana, oihana. Funtsean oihanak diaukek gure lurra mendi huntan, oihanak kanta arazten hegoa bere kumetan, oihanak emaiten xori-kantuak goiztirietan, oihanak emaiten sugaiak gau elurthuetan, oihanak egiten etxeak eta bordak, oihanak gaztaña, urde, onjo eta azken ibilaldiko inguragailua...»

Etxea. Bera zagon. Beraren usaina berehala ezagutu nuen. Zur idor xaharren usaina zaukan.

Ezkaratza, eskalera, sukaldea. Gauza bakotxari begira nindagon bederazka. Sukaldea : sua piztu nuen. Gandeai-luak tauletan zauden, Krixto bethikoa bere lekuan. Kheak beltzarandu paetak, xurruxtateia, ogiaren eta arnoaren hermeirua, amaren untziteia. Ganerrekoko atheak hego ha-tsetan bethidanikako abotsa emaiten zuen, eta naski mintzo bat aitamen ganbaratik ! «mentsa hiz, bana kusi beha'uk !» Ganbara hutsik zagon. Paetan zauden aita-amen esposoko argazkiak, irri herabe batean, osoki irri egiteko beldur, eta han biak elgarren ondoan, gu guziak sortu baino lehenagoko zera... Bularretan hipa idor bat iragan zitzaudan. Bazen ere familia guziaren argazkia : bederatzi ginen, Ana-Mari eta nik komuniatu ginduen urtekoa. Aitak bonet ederra zuen eta gizon gaztea zen, ama pollita eta begi akitua. Manez ? hogoita hamairu urte huntan ez ikusia... Arizonan dena. Baita, hogoita bederatzi urte huntan ez ikusia, Arizonan. Ana Mari, hogoita bost urte Kalifornian. Maiterez hogoita bost urte Kalifornian. Marti, hogoia ta lau urte Kalifornian. Kattalin, hau Garazin. Biak gaude hemen orai. Han nindagon eta bordatik heldu hauteman nuen aitaren abotsa ! Juan nintzan bordarat : bazterrak oro ixilik zauden. Lehengo behien lekuak...Buru-Zabala, han zokoan. Zizto, haren ondoan. Andere III, Andere II, Andere Zaharra. Katzo, Eskuiña, Adar-Xabal, Baigorri.... Denak hutsik. Armi-mahoak eta iñara-kafia zaharrak zoladuran. Gau-iñara bat hegalka argiaren inguruan.

Sabaian hurratsak... eskalerrak iragan nituen : bazterrak hutsik zauden, bakarrik sorho meta ttipi bat, eta handik gatu beltx eder bat jin zitzaudan kurru-kurru zango'artetan egiten zautala. Perekatu nuen eta geihiago kurru-kurru egiten zautan, erhiak amañi bat ausikatuz.

Arresteluak han zauden athearen ezker-aldeko hagatik dilindan. Amaren arrestelu xaharra ezagutu nuen, eraztun urre-kolore bat dazaukan matxarde ondoan. Giderra legundua zuen... perekatu nuen, eta ! amaren ahur ezitia bero-beroa neure garkolan iragaiten seinditu nuen. Larru guzia ikaratu zitzaudan goxoz eta bihotzkatzez. Han nindagon sabai zabaleko argi gorri ezbaiekoan. Hegoak ufako bat iraua eman zakon tellatuari argia dardarika-araziz, eta Indartaldeko oihanetan inguruka zabilela intzireka hautemaiten nuen. Gatuaren marraka iturri-ondotik orai, gauak bazerman harat Sausaldeko errekarat... Iturriak askarat turruxtan erortzean egiten zuen bethiko nigar auhen hura. Eta berriz ere hegoaren burrunba Mendilarrekoko gaztandetik.

Arrestelutei parrean, eskalerraren hegian, leiho aintzinean aitaren eta anaien xintxuketako mahala. Pollikiño tresna xaharren eskuetan iragaiten hasi nintzan : burdin-mutila bere lehengo markitxarekin ! marruxketa... pinpaleta, ongide bat, oh ! Aitaren tallu-pikatzeko ongidea. Eta beste holako puxkila batzu. Ixil-ixila zauden han ene beha. Denetaz orhoit ziren hek. Zoko batean aitaren taillu aztal-luxe xaharra, oil

Sukalderat jua nintzan berriz, egurrez sua kargatu. Noiz-baiteko egurrak bazauden borda gibeledko hegaldetan.

Suak «trrrrii» egin zuen : «etxelarrak !» egin nuen goraki, eta belaunikaturik othoitz egin nuen.

Iratzartu nintzalarik, berriz ere, hegoaren hatsanga ari zen ganerretik. «Egun behar tuk atzo moztu laharrak hego huneekin erra-arazi.» Sabairat juan nintzen su pizteko ezpalka (hauk xintxuketa tokian ziren). Besatra bat ximixtakin eta ezpalen lurretik biltzen ari nintzalarik ohartu nintzan arrasteluen pean lahar burdats bat bazela... begiak goititu eta ! amaren arresteluan xaho lxi bat bazaukan xiri-arrailo bateg. «Atzo etzikan holakoik arrastelu horrek ?!». Hobeki sogin eta lur-herrestoak ageri ziren tollan eta xiritan, herresto berriak. Kanporat banoha eta baratze ixkinan su-leku ttipi bat... hautsak oraino bero beroak !

Laharrak oro lupertuak ziren, baratzea garbi-garbia. Etxagibealeko bidea berdin bipil zagon : laharren erragia Sausaldeko zubi ondoan, bero-beroa. Gehezpetan, Sagardoian... berdin. Artizarrak azken dirdirak kliskatzen zituen Harri-Kottorretako hegian eta xoriak hasi ziren kantuz. Ni 'ere bai. Sua alai eta kafea bero, etxaldeko pentze oihanak ta hesiak argiratzen ari ziren. Gatua supazterrean jarririk burua gora eta begiak erdi-hetsirik suari begira zagon ixilik. Etxe-barneak untsa xahutu nituen, hermeiruak garbitu, untziak berriz ikuzi. Etxe-zaiñek berenak eremanak zituzten baina gureak bordan altxaturik atzeman nituen. Duela berrogoi urteko gatuliak eta sukre-ontziak eskuetan iragaiten nituen. Bixkotx-ontzi hau amak noiz ekarri zuen Donianetik orhoitzen nintzan. Berriz beren lehengo lekuetan altxatu nituen.

Gero Antxienborda eta Xunborroko bordaren ikusten izan nintzan. Alor-leku, pentze, oihan eta larreen ingurua egin. Eta neure Herri-Behereko etxerat etorri behar nuen.

Biharamunean, iturri ondoan zaku bat lurtean ezarririk, ongide xaharra lurtean sartu eta taillu aztal-luxearen mehatzen hasi nintzan. Lehenbizian azantz hil bat egiten zuen, baina erdoila kenduz-kenduz, hasi zen noizbait kantatzen arin eta fin, Peko-Iturriaitako oihanetik oiharzuna errepi-katuz, lehen bezala : ttauk-ttau-ttau... Auzoak bestaldeko mendian etxaintzinerat atherarik beha zauden, baina burua ez nuen goititu nahi. Gure etxean berriz musika bazen. Krink, krink, krink...lahar moztzen hasi nintzan etxe inguruetan. Baratze inguruak lehenik. Gero etxerateko bide bazterrak. Gero borda ta sabaiaren ondoak. Gero sagar-peak garbitu nituen. Gero amaren udarea baitzen borda gibealeko erreka ondoan, hari pea ta inguruak garbitu nazkon. Gero burdinga-sagarrari, gero otsanda-sagarrari, gero Jandona-bane-sagarrari, gero metalastoko intzaurteari, Gehezpetako laharren moztzen hasi nintzan gero. Eguna juanago eta besoak azkarrago. Jan gabe. Iturrian dingako batzu egin, taillua harriaz legunt eta jo beti, ta beti, beti.

Gaua. Soñekoak kanpoan hedatu nituen hegorat. Supazterra bestan zen. Jan eta edan nuen. Berriz ere etxelarrak jantzan nabaritu zitzaizkidan. Atalartzean jarririk, Jandona-bakirako izarbideari so nindagon: zerua gerriko xuriz... Elizako nexka gazte kantariak hola ziren lehen aldikotz Aita eta Amarekin Elizarat juan nintzalarik, Aitak konkolotx eremanik. Eta orai ulertzen nuen Mari Gainekoa nor zen. Gehezpetako zuhamuen adar artetarik bortu hegi urdinak zilarrezko leifuruekin eta argizaria Zuhafetako parrean. Gaztapatzeen enbor ederrak aintzinean nauzkan katedrale-pilarrak iduri eta zuhamuen azpiko munho hegian isatzeak sekretu sakratu idazten ari ziren hegoan.

«Bazterrak garbitu tinagu amifi bat, laharrak moztu, bildu eta erre-arazi.

- Gu ? nor zinezten ?

- etxe-barneak xahutu, untziak ikuzi ta altxatu, etxalarak ohoratu...

- heldu den igandean nahi ba'uk neure bi ahizpak beren senharrekin ekar-arazten tiagu eta Menjiburian inen diagu bazkaria.

- xuxen ! oro gurbilxka ezarriak tinagu, eta liliak ere badi-tinat ezarririk sukaldian : orai famili-besta baten iteko prestik diagon Menjiburua, eta behar din egin besta horrek.»

Primadera heldu zen eta pentzeak berdatzen hasi ziren. Baina «Apirila biribila, urdandela urdia hila, ezta hila bada hila, buztana badabila... etzian hilen bere ordotsian, ukan balu aintzinian, gasna gogorra hortzen artian». Aitaren errana. Larunbatean aroa hoztu zen, euri ta barazizkorra erhauntsika.

Bernaten ikusterat Bitifarat juan nintzan. «Harren jin beha'uk lehen bai lehen Menjibururat buldozerraz ene lurren lantzerat.

- Ba, xuxen-xuxena erteko, beste aste hortako diaukeiat hire etxerat jitia.

- Arua altxatzen den ber jinen hiza ?

- Baietz gizona ! erraiten deat.»

Arratsaldean andreari erran nakon : «So'in betatxaturik tinagu berotokiak, baratzekariak ondo-moko artaturik

ezarriak tinat. Banihoan Menjibururat. Gaurkotz, biharko bazterren untsa apaintzerat.

- Ba, ba, eta etzakala ahatz egurra behar dukala ausarki, hotz duk eta.

- Baietz emaztekia ! badinau brauki han.»

Banindohan bidez-bide ziuntan. Landibarren, Suhuskunen, Lakarran gaindi jendeak ardién sartzén zabiltzan bidetan. Garazi... Erruzate kautta dobles burua, elhurra eta lanbroak. Lehen, pirripitaren bultzatzeko indar berriak hemen zitzaiztan sortzen ixtazaiñetan...Has-arteketan harat banindohan kasik airean. Huna heldu zen. Lerindei-alde ardiak bidean : egon behar. Luix gibeletik, haratago Lope-Beltze elhurretan.

«Gatza-re hurran duzie ardiendako !

- Ez gitxu hortik ari, Koperatifatik diailexuu.

- Untsa ziiztea ?

- Baha ba, ta ziek.

- Untsa gitxu ba Luix, paastiak-paastu.

- Xauri, xauri othoi ! etxiu deusee... xerria egun hil dixiu eta kohata'ixit etxian, xauri.

- Othoi Luix barka zezaaxu, arrunt ilundu gabe oono zeaixka in nahi nikexi etxian, bihar familiako besta ttipi bat hor beharra'ixiu ta.

- Untsa, konpreintzen dixit. Na noiz geldituko xira ?

- Geldituko Luix. Hara hitza. Bestaldi batez. Geldituko nuxu gio !

- Untsa'uxu. Pasa zaxu gau hun.

- Gisa bera ziekee Luix.»

Etixeratu eta, denak han zauden nik utzi bezala. Sua piztu nuen. Gatua kurru-kurru. Leihotik ezagun zen elhurra inguruko mendi guzietan bainan ia gaua zen. Jan nuen eta tabako erretzen hasi. Gogoá matokatua nuen. Euriaren soinuari eta suaren kantuari begira nindagon gogoko galerna jabal beha. Ez nuen goizetsi nahi zer gertatuko zitekeen gau hartan. Beha nindagon. Arnoak gorputza lasaitzen zautan eta suak berotzen. Euria amilka ari zen kanpoan eta Gohonetxeko erreka orroaz Boneinpentze behearean. Zeihar haizea etxeari buruka bere indar guziez euri zortak karraskan zeruko ganerrear eta ximixtak zirtaka bas'haran guzian.

Loak hartzerat nindoan, eskua gatuaren buruan...

«Agur Maria Graziaz betia, Jauna da Zurekin...»

Ama zen.

Begiak ideki gabe jarraiki nuen : «Maria Saindia Jinkuaren Ama, egizu othoitz gu bekatorosentzat orai eta ...»

Eta berriz. Eta berriz. Aitak emeki ihardesten zuen, mintzo ezti akitu batez : «Maria Saindia, Jinkuain Ama...»

«Orhoit zaite Ama garbia... ahide adixkideez...»

Maiatza ordukotz bururatzerat zohan eta gure zerumendia oraino lanhotan zagon. Bainan noizbait primadera jin zen. Mendiak bete ziren belarrez, oihanak adelatu, eta Behibetako Andere-Xuri etorri gure zerurat udaren hitz-maiterat... Artaldeak jua ziren bortueterat eta xoriek umeak sortu zituzten sasu eta brosta zokoetan. Menji-

bururat jua nintzan Bernat bere buldozerrarekin jin beharra zen bezperan. Urkulu oraino elurrez jauntziarik zagon bainan gure naban oihanek itsaso berde egiten zuten eta kukua kantuz ari zen iruzki sartzean.

Hautsak baztertu nituen su-tokian eta kixka idorrez sua piztu. Gatua etorri zen eta ene altzoan kurru-kurru lokartu. Irulegiko-Irratia ezarririk nuen eta Amuriza ta Lopategi zezenaren trikitritxan ari ziren. Sua dantzan ari zen alai. Ausiki bat janik han nindagon mahai-gainean ukondoaz burua atxikiz ia kasik lo... Gizon bat ene aintzinean alkian ! intzaurrak hausten zituen ahurrean bata bertzeari eta pollikiño jaten. Boneta buruan. Artetan ene arnotik godaleta betetzen zuen eta edaten. Berari so egin nakon eta irri goxo batekin bera eni so intzaur jaten ari zen. Gure Aitaren eite izigarria zaukan.

«Nor xituz othoi ? naski zautzen xituz, ua...»

- Ni ? ba, aise ! aitak eta amak hainbeste aipatia xaxkiate lehen. Baa ta Mañexek eta Kattalnek-ee.

- Baa, xuk enuxu ez ezautu. Zazpi ilaite xiutien hil nintzalaik. Bana altzuan atxikia xituz ba, xu, gaizua, ximiña xinen ordian.

- Oh ! oh ! aitatxi. Ze plazerra. Ta zerian xaude harren aitatxi ?

- Oh ! ze pena nien hiltzian ! ziek guziak hoin ttipiak eta etzintuztela geihio ikusi behar...

- Harren Aitaxi xu zerian xira ? Untsa xirea zerian Aitaxi ?

- Ikusten nitxin zien aita ta ama, hain gazte ! ziek hain ttipiak, eta ni johaki, oh !

- Oh ! oh ! aitatxi... Xuk saharrá lau parte iten omen xindien bizi xinelarik denek hartaik jateko, amak errana... Untsa xira harren zerian Aitaxi ?

Eta suan egur bat kraskatu zen. Itzuli nintzan suaren erdirat-biltzeko. Lopategi ari zen «goizalderaiño, goizalderaiño...»

Berriz lekuratu nintzalarik bakarrik nintzan sukaldean. Aitatxi etzen han. Leihorat juan nintzan, Bonein-Pentzeko erreka intzireka ari zen eta goian izarrak : Jandonabakirako bidea zeru urdin izarratuan Oriun-Ziloko pagadoietan harat zohan Orregarat buruz.

Bernat jin zen. Bost alor lantu zituen buldozerraz : ezkandaka ezarri. Fruatatze berriak landatu gintuen denetan. Gaztaña hesolak lerroka sartu mahastian bezala frutatzeen burdinhariendako. Haizearen jo-gunetan leizarrak eta busuntzak landatu frutatzeen orkobitzeko.

Larrazkena jin zen.

Menjibururat juan nintzan ibiakoitz arrastiri batez. Urria zen. Hegoa. Auzoko amañi Bidaurreta ez untsaz zagola bainakien, bide-nabarka Ahatsatik gaindi iragan nintzan berarentzat amarrañen erosteko, biziki maite baitzituen.

Beraz, ilun-nabarrean Sausean gelditu nintzan. Irulegiko-Irratiari beha zauden supazterraren inguruan denak. Berhala arnoa athera zuten eta arraiñak ideki mahai gianean. Mila plazer baitzuten.

Biharamun goizean nintzan ohartu egur-meta pollit bat bazagola supazter ondoan. Mahaia apaindurik ezarria zen : untxiak sei andanetan, godaletak, zaliak, gizkeiak, orkaxak... eta lili berriak ontzian erdi-erdian : haize-liliak eta otxa-liliak, sua izarkirik. Piztu nuen ezpal berriak ezarririk. Baratze-zolako udaretzea lili xuritan zagon, eta xoxo bat handik xaramelan. Bethi nigar egin arazten nau xoxoak. Beste mendiko etxean, Indartean, sua bazuten ere, xamindeitik khea bazohan. Hango xakurrak josteta zabiltzan etxazpeko pentzean. Otxagabi aldetik iruzkia jinen zela nabari zen : zuhañetako zerua urrez distiran zen. Elurrek garrasizko argi xuria zaukaten bortu guzietan eta udaretzeak amodio dardaran zauzkan lili bustiak. Andrearen autoa hauteman nuen Gaztain-Zilon gora heldu eta kantu berri bat jin zitzautan zintzurrerat.

Juan ginen biak azkonaren xendrerat, Miatze-Bixkarreko potxarat, udaberriko lili berriak nun gordetzen ziren erakutsi nakon. Amarrañak behereko errekan nun eta nola harrapatzen nazkon erakutsi ere. Laster iruzkia hasi zen andrearen begietan dirdiraten.

«Bernati alor hau hortxetik haradino ezkandaka lantarako diakonat. Ezkanda hegitan landatuko tinagu zuhamufrutuak...»

Gero etorri ziren koñatak. Hau galde eta hura galde... ez neien erraiten gauzen axala baizik. Baitira asko gauza erran behar ez direnak. Erran gabe ulertzen dituztenendako dira. Lehen hola zen, orai ere, eta gero ere hola izanen. Gure haurretan batzu badira mintzaira gordeen ulertzeko izanen direnak. Badakit. Neure ikastetxeko mutil nexketan badira batzu, ikusi deiet behakoan Mari Gauekoaren igitaria. Jandonabakirako izar-bidea ulertu behar dute berek.

Andreak eta bere ahizpak etxea ikuzi zuten barnez eta larre-oihanak erakutsi neizkeien. «Hementxet eginen diat ur-bilgia bat ederra, hortik etorriko baitzeie zuhamufrutuari ura. Amarrañak izanen dituk hemen eta oraino atsaldaskariak egin behar ditiagu finak !»

Baskari bat orhoitgarria egin ginduen han. Arranoak inguruka zabiltzan gora zeruan eta pentzeetan artalde xuriak. Koñat batek erran zautan : «hire aita ihizin ibiltzen zen oihanetarat gohazen.

— elur sobera ba'uk uai !

— auto-bidea ez dea ba ?

— Bai, bainan hortakotz. Autoa ezin duk harat juan.

— Oinez goazen harren.

— Urrunegi duk gizagaizoa ! geihegi jan ta edanik ba-diagu

— Iduri duk ez dukala harat gurekin juan nahi...

— Eez ! ez duk batere hori. Bana leku hauetako ara badiat, eta badikiat nehola ere ezin dela egun harat juan.

— Alta datorren udan juanen gituk.

— Behar bada bai...»

Urrunean zauden han oihan urdin ederrak, tabernakle sakratuak. Hango elurretan bas'ahuntzen hurratsak...



- Zonbat zor dautzugu ?
 — Ta nik zonbat zor dauziet Gañeko-Pentzetikako iratze orga heendako ?
 — Hua jeusik ezta, berdin guhauk ez gindion balia.
 — Baliatia duu ba guk : oixe ! zonbait tomate landa-
 reren ohandze inik badu !
 — Hobe, baliatu ba'uzie. Na, arraiñ hok paatu nahi tuu.
 — Zaude othoi ixilik !
 — Untsa beaz. Ta ? zonbait eunen jina zirea ? Urtzo-
 ihizirat zu ?
 — Ba hori bera !
 Ta irri.
 «Pollitei dira urtzuak tirokatzeko.
 — Alta zien aita tirokatzen zitien, hemengo ihiztari
 hoberenatarik omen zen.
 — Hala diote. Egia da, maite zien ihizia, urtzo ihizia.
 Ba'ut anaia bat hogoitabi urte huntan Amiiketan doona,
 ixkiatu berri daat : urrian han ardien erditzeko sasoina
 izanki eta (lan tenore haundiena), gauaz amentsetarik
 urtekal Aita zenarekin dabilala Geheztein, Gohosaron,
 Uztazun, Zalbeten, Tirran, Oriun-Zilon gaindi, eta ere
 Kotxu-Betagietan... hori ez dakit nun den.»

Etxalderat sartzeko seheila hetsi nuen neure atzetik eta autoa piztu gabe berriz, gainbehera ixilik heldu nintzan gure etxaintzinerat. ETxea bera ixilik. Argi-Zaria zeruan. Mendiak eta potxak, oihanak hegoan. Bestaldeko auzoak han xuri-xuria. Gatua jin zitzauban. Bordarat juan nintzan gako-ka. Han denak beren tokian zauden. Pollikiño etxe-athea ideki nuen. Nij utzi bezala ziren bazterrak oro. Sua piztu, tabakoa ahurrerat ixuri. Zaude, baratzerat juan nintzan : bi arrosa eder hartu eta ontzian ezarri mahaian. Orena bazohan, irratiak emaiten zuen «lurraren pean sar nindai-teke maitia zure ahalgez...» Suak trriiit... egin zuen. Irratia itzali nuen eta sukaldean belaunikatu.

Gero, etzan intzan aita eta amaren ofean. Etxearen ixila ! haizea hasperenka ganerreen doidoia...

Goizaldea hurrandia zitekeen irartzatu nintzalarik : lauak, lauk et'erdia bethi bezala. Biziki untsa hautemaiten nituen elheak sukaldetik.

AMAK : ozpineko biperrekin inen dauxut arrultze- mō-leta Eñautek ekarririk den untsi huntaik.

AITAK : ba, maite txit ba biper ozpinekuak.

AMAK : xardin buata'at horrekin ? Gasna-ree baixi ekar-ria Eñautek.

AITAK : ba, berdin.

AMAK : xahakua-ree bizkarreko zakian ezarria dauxut.

AITAK : untsa. Gehezteirat juan-goo'ixit, egun ene idu-riko urtzuak haat join dixi...

Eta amaren irri karkalla entzun nuen.

Hatsa bahiturik beha nindagon. Xoragarriko goxo batek betetzen ninduen gorputz guzian. Aitaren bortuko oskiak hauteman nituen brau, brau, brau ezkaratzean. Athea krask hetsi zuen, etxagibelean harat johaki entzun nuen.

Ama... beraren hurrats arhinak hauteman nituen sukaldean oraino. Untzi altxatzeko azantzak... eta gero denak ixilik. Higitu gabe nindagon ofean. Pentzeberri aldetik axeria xaringaz ari zen. Hegoak Matxardenen-Lepoko haritztegia bultzako berri bat egiten zuen, eta gatuaren marraka hedagia aldeko sorhotik haizeak barreiatzen zuela Arhainatan harat. Huntzak hurubi egin zuen Bordagibealeko intzaurtzetik. Loak berriz bereganatzen ari ninduen ahantz-eremu xurietan barna. Amentsek egunargizko gauzak nahasten ari zauztaten eta zurdetan estekirik nindagon alde orotarik xori gaixoa xederan bezala. Nahiko nukeen oraino atzarririk egon horrelako agitgarrien ez galtzeko bainan nehola ere ezin... arrainka ginen ari Gohonetxeko errekan Indarteko Xan Pierra ta biak. Artoak zohi ziren, bizar gorriak irriz, eta ostoa jantzan. Eskolatik haurren garrasiak... Babileneko Mai arto-biltzerat galdez... Gaztaifa egorozten Erramun Landarteko gaztandoian, Aita behiekin eta katauekin :

«Negian goxo izain txu paderan erreik gaztañak.»

Noizbait argi-zirrinta sartu zen gelarat leihoen arteketarik. Jeiki nintzan. «Orai iatzarririk hiz haatik !» eta eskuz arpegia joiten nuen. Leihoak ideki nituen, kanpoa xoragarriki urdin zen, azken izarrak gauari adioka, zerua xuhail, leihoariaren hats ezta sartu zen gelarat. Orhoitu nintzen... Sukaldean arrutze-ta-biper berriki errearen usaina. Ezkaratzeratu berriz eta... aitaren harma etzagon bere ohiko lekuan, urintegi ondoan. Sukalderat... kartuxen gerrikoa etzen bere itzean.

«Alta naikuan ihizirat juan beha'uk ! Harmorik gabe, aitararen xendretarik...»

Bidez-bide Gehezteirat. Sausaldetik ez nahiz iragan, Larre-Zokotik juan nintzan auzoek ez ikusteko. Orrhe-Maldan gaindi, Sauseko Peko-Pentzetik (axerien jostalekuan gaindi), Peko-Bixkarren harat. Hatsangan, aita amari bazutan kantatzen zakon kantua ez niron gogotik ken :

«Anderia, gorarik zaude leihoan

«Zure senharrà behera dago Frantzian

«Hura handik jin ez diteken artian

«Eskutaritzat har nezazu sahetsian»

Izerdiak eta... naski nigarrak, nahasten zitzauskitan ez-pañetan. Zeru-pean etzitakeen nehor izan ni nintzan baino zorionago.

Juan ahala juan oihan ederren petik banindohan. Darte-Maldatik moztu nuen Ugarre alderat, handik Iturbiderat. Ezpel brosten urrina !!! Aitak hainbat aipaturik... Behobiko erreka peña-artetarik han gaindi doha. Lehengo arraintzak Mañex eta Batitarekin ! Nolako irri pollita egiten zaukun amak etxerat arraiñekin heltzen ginelarik !

Xuberaineko maldan gora, Ezpondako zubaitan harat, Antxilenero parra iraganik, berehala Gehezteiko asketan nintzan. Han itur hotzatic edan nuen. Tiroak hasiak ziren Oriunetik. Gehezteiko potxatik tiro bat... «hori aitarena». Banakien. Juan, jua, jua. Xendrak ereman nindun Gehezteiko bordarat. Han ezbaletan nindagon «pentzetik ala Oihanetik?» Pentzetik, ikusten ahal ninduen, «guazen oiha-netik» egin nuen. Pollikiño abiatu nintzan borda ezker utziz, potxa-gerendetarar buruz. Bihotza taupa-taupa ari zitzautan eta hatsak min egiten

«Anderia gohora zaude leihoan...»

Pagazorrotzeko erreka erroitza zolan orroaz. Tiroa berriz entzun nuen. Orai banakien nun zagon. ñauka nindohan. Laharrek kopeta, burua ta eskuak arhaturik nituen. Foltzuak danga-danga. Esku gibebeko odola mortxatu nuen izardiarekilan.

Geldi, jua. Geldi, jua. «Hura handik jin ezteken artian...»

«Eskutaritzat har nezazu sahe-

tsian.»

Amaren karkalla... «Beha'uka jua haratago?»

Eskuak ikaran nituen, atorra urratua papoan eta odolez gorritua. Erroitzaren haraindian ageri zen Oriune handia papo-itsaso bat, Uztarazuko bordaldea hortxet erdian, Orbaizetarako xendra, Zalbeteko munhoa... Burua goititu nuen ezker alderat eta Errozatè han zagon ond'ondoan. «Eez ! gohorago duxu Erruzate...» Gauza izigarri baten egiterat nindohan... «untsa, bost hurrats oraino ta haratago enuk jaun» Berriz abiatu nintzan pollikiño, delako musika heldu zitzautan oraino ere... Ahai ! hortxet, hortxet berean zagon... Bai ! Aita. Lasai-lasai zagon zeruari begira. Bazterka ikusten nuen : bethiko Aita. Begi xuria zeruetarat begira, aroaren ikertzen bezala, bethidanikako aments hura soan, irri-aire bat ahoan. Sudurra xuxen, boneta buruan, matelkoskoak akituak bainan halako eztitasuna aurpegian ! Harma eskuetan zaukan kanoia goiti so. Inguruan urtzoak lurrean : bat, biga, hiru, lau... Fla-fla-fla ! pago ostoaetan urtzoen farrasta. Aitaren aurpegian haur ttipiaren irri bat egin zuen, kanoia goititu zuen eta tiratu... paan !

Hor iratzartu nintzan. Ezkaratzeko athea zanpaka ari zen haizean. «Nun hiz, zer hiz ? Zer bada...?» Noizbait ohartu nintzan ohéan nintzala, Menjiburian. Zerbaitez orhoitzen hasi nintzan... Sauseko Ttotte Menjilarre aldetik zena kantuz ari, ala irratia zen...

«Anderia gorarik zaude leihoan.....»

Hegoa zen. Salako leihotik bortuak gorri-uridin. Moxkor nintzan leihorriaren ederrez, burua burtxorutzen zitzautan arnoa edan eta bezala. Urte-erdiko loaz aztoriaturik nindagon amodioak egiten duen bezala. Begira, begira, oihan urrunekoeri, Aita ihizin ibiltzen zenekoeri... Zazpi urtzo bazohatzen hegalka Orreagarat buruz.

«La vida es sueño» itxeskatu nintzan■

HIZTEGIA

aitxaki	: ascendance, originel
gariak	: egur mehe arraildu gabeak
xarduki	: traïter, négocier
pildatu	: mettre le bât. Argot : s'habiller de guenilles. «otsoak pildatu», prendre le taureau par les cornes.
Futsu-Yama gerenda	: Japoneseztat, Jainkoaren mendia
lahar	: corniche
otsalahar	: gapar, méhar, ronces
xaho	: rose des chiens, églantier
beratx	: belar zotaldua, herbes séchées sur pied
nauka	: tendre
goha	: à quatre pattes
buharrak	: exhalaison, atmosphère lourde
	: cime des arbres. Abstrait : buharra, heda-dura, envergure
kotxu	: kaïku
talastatzen	: éclabousser
arta'man	: arta eman, kontuz, kasu
heña	: neurria
xurruxtatea	: pegarteia, évier
burdin mutila	: sorte de serre-joint
markitxa	: ébréchure
marruxketa	: petite varlope, racloir minuscule
pinpaleta	: forèt
ongide	: ingudi ttipi bat tailu mehatzeko
konkolotx	: bizkarrean edo soin hegietan
ezpalak	: gros éclats de bois faits à la hache
ximixtak	: fins et longs éclats de bois (de coudrier ou chataignier) faits sur les genoux en pliant les tiges vertes
	Ximixtak saski egiteko lantzen dira
ximixtak	: ihurzuriak
matxarde	: sarde ttipi
burdats	: extrémité (d'un rameau, d'une mèche de cheveu, etc...)
tolla	: barre du râteau supportant les dents
lupertu	: disparaître
ondo-moko	: hatz-behatz, entièrement, de pied en cap
brauki	: nasaiki
kautta	: bonnet blanc de laine pour bébés
matokatua	: (laine) emmêlée, feutrée. Ezin iredia
goizetsi	: anticiper, prévoir
amilka	: pleuvrier des haliebardes
izarkirik	: recouvert de cendres (braises)
ezkanda	: talus des terrasses
ortkobia	: abri, ort edo sort edo erdi-kobia (nid)
busuntsa	: peuplier, zurzurria
itxeskatu	: s'étirer
zurda	: lacet, zaldiaren buztaneko pirua
burtxorutzen	: avoir le vertige
aztoriatu	: ivre, drogué. Zaldia oloa jan eta «aztoriatzen» da
leihorria	: l'espace terrestre.

Eñaut ETXAMENDI.





KOZINA

OZPIN SALTSA

Janari ospetsu hau, gure arbasoek gogotik iresten zuten Isturitzeko harpeetan egiten zituzten bazkari animaletan. Ase hanturik etxerako bidea hinki-hanka aztoriatu-rik hartzen zuketan. Zuek ere, maiatzero maiteak, berdin, trebe baldin bazarete kozinan, ozpin saltsa prepara dezakezue.

Hona errezeta :

- hiru pinta ozpin gorri
- lau baratxuri
- tipula erdi bat
- baso bat txakoli
- bost lur sagar
- basilika belar eskutza bat
- arroltze bat.

Elementu hauek xerra finetan mozten dituzue, eta kasolan irakiten eman oligora botatzen. Sua berotzera utzi ondoan, punpulaka ari delarik, masa horri baso bat txakoli aurdiki behar diozue urrunetik, ozpin saltsa zarta ditekelaokan. Ez da gehiago nekatzerik. Bi egunez sutean abandona zazu ozpin saltsa, mittona dadin, hirugarren goiz nabarrean fresko zerbitzatzeko zuen lagunei... Apetitu on !!!!

MAMI LOLO



COMMUNIQUE *Maiatz*.

«*Maiatz*» Aldizkariaren bulego erabakitzailearen azken bilkuran, errebista hau presidatzen duen Itxaro BORDA minorian jarria izan da. Itxaro BORDA-k gure literaturazko loretxoaren omena bistu du erranez, «*Basilika*» bere azken obran, «*Apezpikutegiaren boletin ofiziala bilakatzen zela Maiatz*». Apez askok parte hartu arren «*Maiatz*» honen famaren altxatzean, gure ez ados izatea fermuki agertu nabi dugu xede horrekin eta irakurle jarraikieri, bereziki hegoaldekoeri, Itxaro BORDA-ren aipamen horrek ez duela ez bururik ez buztanik salatzen dugu.

Maiatz-en bulegoak.

MAIATZ

15, Pontrique karrikan — 64100 Baiona
Tél.: (59) 59.86.33 — Banco de Bilbao — 20007014004

Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) : 90 F edo 1 500 Pta
sostengu gisa : 150 F edo 2 800 Pta

HEGOALDETIK ABONATZEKO

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-
rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura:
Izena:
Hebidea:
.....
Posta zenbakia:
Hiria:
Herria:

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:
Adina: Lanbidea:
Telefono zenbakia:

BAIONAN

Jakin: 8 avenue Foch
La rue en pente: 29 rue Poissonnerie
Musée basque: 1, Marengo karrikan
Zabal: 52, Pannecau karrikan

BILBON

Galeria del libro: Ercilla, 35
Herriak: Lizenzado Poza, 11
Kirikiño: Colon de Larreategi, 11
Universitas: Alameda de Mazarredo, 6
Verdes: calle Correo

DONAPALEUN

Amikuze liburutegia
Barthaburu liburutegia

DONIBANE GARAZIN

Maison de la Presse

DONIBANE LOHITZUNEN

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

DONOSTIAN

Bilintx: Fermin Calbeton, 30
Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13
Manterola: Manterola, 8

GAZTEIZEN

Herrikoia: Cuchilleria, 76

HAZPARNEN

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

HENDALAN

Derro liburutegia: 18 rue du Port

IRUINEAN

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)
Auzolan: San Gregorio, 3
Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

MAULEN

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

MIARRITZEN

Eki: 21 av. de Verdun

PARISEN


Euskal etxea: 10 rue Duban 166

*Eskerrak aldizkari hau zuen eskuetara
itxura hontan heltzera lagundu duten
guziei :*

molde berezi batez

*- makinan ari izan diren Belen eta Jakiri
- marrazki egileei, Itxaro eta JSri
- maketa egileari, Itxarori*

*Edité par l'Association MAIATZ
Responsable de Publication : M. Bovard
Dépôt Légal : 2ème trimestre 1985
Imprimerie Impriminute et Imprimerie
Artisanale à Bayonne*



Maiatz.

15 PONTRIQUE KARRIKAN 7
64100 BAIONA - TELEFONA
(59) 59 86 33 - LEGEZKO EMAI-
TZA 1985.EKO BIGARREN HI
RURHILABETAJDAN - AGER
ARAZLE *Maiatz.* BATASU
NA BAIONAKO BALIXONEKO

ELKARTETXEAN - LEGEZKO ARDURADUNA M. BOVARD - INPRIMATZAILE IM-
PRIMERIE ARTISANALE ETA IMPRIMINUTE BAIONAN - 1985.EKO MAIATZEAN-
HIRUR HILABETEKARIA - SALGAI 25 LIBERA EDO 500 PEZETA - URTE OSORA
KO HARPIDETZA 90 LIBERA EDO 1600 PEZETA - BCO DE BILBAO 20007014004